ARGIA

ARRAKALA DIGITALA

Euskarazko audio-liburuak, loratze bidean

Literatura idatzia entzuteko aukerak biderkatzen ari dira, baina pauso sendoagoak eman behar ditu sektoreak hutsunea betetzeko

26-29.orriak

#2.747 | 2021 / 09 / 26 | 3,90 €

"Fikzioa eta dokumentalaren arteko mugak asko ari dira lausotzen"

16 | AINHOA GUTIÉRREZ DEL POZO

LGBTfobia eskoletan, irakasle homosexualen begiradatik

30 | HEZKUNTZA

LARRUN #266

Haiti, iraultza eta mendekua

JAKOBA ERREKONDO ETA ANTTON OLARIAGA

ARGIA

BIZI BARATZEA

www.bizibaratzea.eus

Norberaren eguneroko bizitza ilargiaren eta lurraren aroekiko irekita bizi nahi duen ororentzat, gozagarri eta jakin-min asegarri dugu agenda hau.
Gure bizitzako hitzorduak eta gogoan hartu beharrekoak idazteaz gain, landareekin egiten ditugun lanak jaso eta ikasteko baliatuko dugu. Agendan irakurri ahalko dugu ilargiaren arabera aste bakoitzean lurra nola landu baratzean, fruitu arboletan, lorategian eta basoan: zer erein, zer landatu, nola inausi, nola tratatu, zer uzta jaso, nola txertatu...

AURRE-SALMENTA: **AZOKA.ARGIA.EUS · 943 37 15 45**

14€ +4€ bidalketa gastuak

ARGIA

2.747 zenbakia I Irailak 26, 2021

Panorama

04 I ASTEKO ARGAZKIA
06 I AKTUALITATEA
07 I HUMANITATEAREN UNE GORENAK
07 I EZ HANKA EZ BURU
08 I ARKITEKTURA
10 I TEKNOLOGIA

AZALEKO ARGAZKIA:
DANI BLANCO

Iritziak

21 I DAVID BOU
22 I ANE ABLANEDO LARRION
23 I JOSE IGNAZIO ANSORENA
23 I ITZIAR BARDAJI GOIKOETXEA
24 I NEKANE TXAPARTEGI

SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK:
CLIPART COURTESY FCIT

Finkoak

42 I DENBORAREN MAKINA
43 I ARGIA KOMUNITATEA
44 I BIZI BARATZEA
48 I KULTUR-KRITIKAK
51 I DENBORA-PASAK
52 I ARGI-KONTRA: XABIER APESTEGI
54 I BERANDUEGI

DANI BLANCO

30 I **SEXU ASKAPENA ESKOLAN**
Ikastetxe barruko eraso homofoboez eta horren aurrean irakasleek egin dezaketenaz hitz egin du Mikel Garciak, ikasleen aurrean armairutik atera izan diren bi irakaslerekin: Kepa Blázquez eta Usua Martinez.

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 I NET HURBIL
Irlandako urrearen gatazka: hemen dira meategi berriak Europako lurrak harrotzen
Pello Zubiria

16 I JENDEAK I AINHOA GUTIÉRREZ
"Kontrolatu dezakezuna kontrolatu dezakezu, eta bestela kaosak har dezala"
Miren Artetxe Sarasola

25 I ASTEKO GAIA I AUDIO-LIBURUAK
Euskarazko literatura idatzia ahotsez emana, nola dago panorama?
Peru Iparragirre

34 I NAZIOARTEA I KURDISTAN
"Garrantzitsua da ulertzea mugimendu iraultzaile perfekturik existitzen ez dela"
Amaia Lekunberri Ansola

38 I EUSKARA I "NORA" FILMA
"Nora" filma euskaraz ikusteko bidaia
June Fernández

46 I KULTURA I LORENZA MAZZETTI
Barrura begiratu memoria egiteko
Ainhoa Aldazabal Gallastegui

OLATUKOOP
EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN SAREKO KIDE GARA

ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

Jabetza
Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea
Lehendakaria
Onintza Irureta
Erredakzioa
Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Iraitz Madariaga, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Peru Iparragirre, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga
Diseinua
Maitane Gartziandia
Argazkilaria
Dani Blanco
Produkzioa eta inprimaketa
Antza S.A.L.
Administrazioa
Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarte
Salmenta
Karlos Olasolo, Olatz Korta, Pello Basurto
Azoka
Mikel Olabide
Idazkaritza
Aloña Soraluze, Bego Zuza
Web garapena
Asier Iturralde
Informatika
Iametza interaktiboa, S.L.

Lege gordailua
SS 837-2012
ISSN
0213-909X
Batzorde parekidea
72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO
Posta elektronikoak
komertzial@argia.eus
harpide@argia.eus
Telefonoa
943371545
Gipuzkoa
Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria
Nafarroa
Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina, 31001 Iruñea

Ametzagaiña taldeko kidea da ARGIA honako enpresekin batera:
antza KOMUNIKAZIO GRAFIKOA
iametza interaktiboa
ADUR software productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitara ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.

Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.

EZ GERRA, EZ BAKERIK

2014an gerra bat piztu zela Europaren bihotzean genioen. Zazpi urte pasa dira eta gerrarik ez balego bezala jarraitzen du egoerak Ukrainan eta Donbassen. Baina gerra ezak ez du bakea esan nahi. Batetik Ukrainak Errusiaren balizko inbasioaren mamua hauspotzen jarraitzen du, lagun nahi dituen Europar Batasuneko kidee aurrean, baina aldi berean Ukrainako armadak Minsk-eko su-etenaren akordioa urratzen jarraitzen du; 51 alditan, abuztu amaieratik pasa den astera bitarte. Tartean 28 eraikin eta 11 azpiegitura kaltetu eta bederatzi lagun zauritu dituzte Donetsk-en, arma astunak erabilita. Ostiraleko irudian, Ukrainako soldatu bat drone bati tiro egiten Donetsk-eko mugan.

A. STEPANOV / AFP / G. IMAGES AXIER LOPEZ

Argindarraren prezioak gatazka eragin du

IRAITZ MADARIAGA ETXEBARRIA

Espainiako Gobernuak argindarraren prezioaren hazkundea gelditzeko neurri multzoa onartu du. Energia enpresek kobratu dezaketen gehienezko prezioa kilowatt orduko 20 euroan jarri dute. Foro Nuklearra kexu da: gutxienekoa 57-60 euroan ez badago, zentralak itxi beharko dituztela.

Teresa Ribera Trantsizio Ekologikorako ministroak proposatutako lege proiektuan, herritarren faktura elektrikoa %30 jaitsiko duten neurriak hartuko dira. Berehala etorri da Foro Nuklearraren erantzuna, proposatutako aldaketa fiskalek beren irabaziak %25 mugatuko dituztela-eta.

Egun, batez beste, elektrizitatearen prezioa 55 eurokoa da orduko erabiltzen den kilowatt bakoitzeko; neurrien multzoak 20 eurora jaitsiko du orduko kilowattagatik enpresek kobratu dezaketen gehienezko balioa. Hortik gora irabazten duten zenbatekoa bueltatu egin beharko dute konpainia elektrikoek. Neurria sei hilabetez izango da indarrean, 2022ko martxora arte.

> **"Nazioarteko merkatuan gasaren prezioa euro bat igotzen den bakoitzeko, Espainiako elektrizitatearen merkatuan bi euro egiten du gora"**

Energia nuklearraren lobbya-k salatu egin du hartutako erabakia, behinbehineko neurria den arren, energia elektrikoaren bidez lortutako argindarrari "penalizazioa" ezartzen diolako. Sektoreko enpresek –Iberdrola, Endesa, Naturgy (lehen Gas Natural Fenosa zena) EDP eta Repsol tartean– legea aplikatuko den sei hilabeteetan 2.600 milioi euroko galerak izango dituztela kalkulatu dute. "Parke nuklear osoaren jarduera etetea" ekarriko lukeela diote enpresek, eta Espainiako Estatuko zazpi zentralak itxi egin beharko lituzketela "errentagarritasun faltagatik". Ribera ministroak oroitarazi die ez dutela horrelako erabaki bat gauzatzeko eskumenik, administrazioaren baimena beharko luketelako ekoizpena gelditzeko.

Enpresek ikusten duten beste irtenbidea da elektrizitatearen prezioari muga gorago jartzea. Beren ustez, orduko kilowattaren gutxieneko prezioa 57-60 euro artekoa izan beharko litzateke, etekinak ziurtatzeko. Egungo prezioak, halere, elektrizitate enpresek aurreikusten duten minimotik oso urrun daude. Azken hilabeteetan, kiolwatt orduko 150 euroko fakturak ari dira aplikatzen, eta prezioek etengabe jotzen dute gailurra. Igoera Europa osoan ari da gertatzen, lehengaien kotizazioaren eta gas naturalaren zein karbono dioxidoaren prezioen igoeraren ondorioz.

Baina energiaren ekoizpen kostuek nazioartean gora egin arren, Espainiako elektrizitate sektorean biderkatu egiten dira merkatuak ezarritako prezio horiek. Teresa Ribera ministroak horrela azaldu du: "Nazioarteko merkatuan gasaren prezioa euro bat igotzen den bakoitzeko, Espainiako elektrizitatearen handizkako merkatuan bi euro egiten du gora, eta bukaerako prezio hori da elektrizitate ekoizle guztiek ezartzen dutena, beren kostu operatiboak edozein izanda ere". Hori horrela, orain arteko "ezohiko irabaziekin" laguntza ematea egokitzen zaie enpresei. Gutxienez, elektrizitatearen prezioa herritar asko itotzen ari den "salbuespenezko" egoera honetan. Aurreikuspenen arabera, 2022ko martxoan handizkako merkatuaren prezioek behera egingo dute, eta orduan galerak itzuli egingo zaizkiela zin egin zaio elektrizitate sektoreari.

Lobbystak, baina, aldaketa guztien aurka agertu dira: orain arte bezala jarraitu nahi dute. ●

HUMANITATEAREN UNE GORENAK

Dirua

ARITZ GALARRAGA

Azken garaiotan inposatzen ari zaidan pentsamendu bat: dirua ez da inportantea. Edo, bestela esanda, dirua ez zait inporta. Are bere existentzia zait erabat trabagarria. Kontxo, onura baino gehiago, ondoeza eragiten didala. Hau da, existituko ez balitz, hobeto. Eta diruaz hitz egitea tabu izango da, baina diruak gutaz hitz egiten duela esan daiteke, erabiltzeko dugun moduak definitzen gaituela. Ni neu ez naiz gastatzaile konpultsiboa, ez aurreztaile patologikoa. Ez eta tartekorik ere. Ez. Indiferentzia da erabatekoa. Eguneroko behar oinarrizkoenak asetzeko –eta, ados, tarteka libururen bat erosteko– nahikoa badut, aurrera. Zentzu horretan inbidia pixka bat ere badiot Martin Amisen *Money* eleberriko protagonistari, Jon Neroni: adikzioak ugari ditu, edana, tabakoa, janari azkarra, pornografia; baina, batez ere, dirua da bere droga nagusia.

David Graeberrek esango digu hasieratik daudela kreditua, zorra, dirua. Eta agian ez dago elkartrukerako bitarteko eraginkorragorik –eta kasu horretan nire arazoa litzateke, ez hainbeste dirua, baizik eta beste jende batekin elkartrukatu beharra–. Eta agian arazoa da diruaren gehiegizko goratzea, gorazarrea, jainkotzea, elkarreraginen erdi-erdian jarri izana –eta hartara berreskuratuko nuke fede apur bat elkarreraginean, eta bilatuko nuke beste modu batekoa–. Bada, seguru, dirua neurriz goiti pilatu duenarekiko halako mesfidantza bat, San Agustin gogoan: aberatsa, edo da lapurra, edo lapurren seme-alaba. Ambrose Biercek beste definizio bat dauka: "Nagien, ezgaien, etxekalteen, bekaiztien eta zorigaiztokoen ondasunak kudeatzen dituena" –eta, ez naizenez aberats, jakin nahi nuke kategoria horietako zeinetan, edo zenbatetan sartzen naizen–. Alegia, errazagoa dela orratzaren begitik gamelua igarotzea, aberatsa nire erreinuan sartzea baino. Eta, aldiz, pertsona guzti-guztiek behar materialak aseta izatea iruditzen zait dela, politikaren zeregin nagusi, ez esateagatik bakarra. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA
www.adurlarrea.com

GORABEHERAK

"Galizia, herri bat, selekzio bat" kanpaina abiatu dute.
Galiziako selekzioak ofizialki lehiatzeko eskubidea duela aldarrikatu du Vía Galega herri ekimenak. "Ez Xunta, ez Galiziako Futbol Federazioa, ez daude prest lagun arteko partidak antolatzeko ere". Egoera hori irauli nahi dute.

Segregazioari eutsi diote Opus Deiko bi ikastetxek.
Opus Deiren bi eskola pribatuk ikasleak sexuaren arabera bereizten jarraitzen dute Nafarroan. Biek finantziazio publikoa jasotzen dute, eta ez dute martxoan Nafarroako Gobernuarekin sinatutako akordioa betetzen.

LURRALDEA ETA ARKITEKTURA

Nahi dugun hiria

ULA IRURETAGOIENA

Irudikatu ezazue areto handi bat arkitektoz betea, momentuko nazioarteko ahots esanguratsuen berbaldiak entzuten. Jakin ezazue agertoki hori berriki gorpuztu dela, irailaren 8tik 10era, gure etxeetatik oso hurbil, Iruñeko Baluarten. Arkitekturaren sustapenaz arduratzen den fundazio pribatu batek antolatu du, gaztelania eta ingelera nagusi eta euskararen presentziarik gabe.

"Nolakoa izan behar du nahi dugun hiriak?" galderaren bueltan aritu dira arkitekto, ekonomialari, soziologo eta bestelako diziplinak, diziplinartekotasuna hiria egiteko funtsezko oinarria dela aitortuz. Argi gelditu da hirien etorkizunak jardun beharko duela klima aldaketaren erresilientziaz, auzoen birgaitzeaz, etxebizitza parke duina sortzeaz, mugikortasun ereduaz, espazio publikoaren eskubideaz, berdintasuna bermatzeaz eta osasunaz. Konplexutasun maila handia eta zeharkatzen diren arazo mordoa dira guztiak, eta denek aho batez onartu dute etorkizuneko erronken izaera eta dimentsio berriagatik, orain arte erabilitako errezeta urbanoek ez dutela balio. Hiriaren kontzeptua krisian dago.

Azpimarragarria hiriek sortzen duten hildako eta gaixotasun kopurua eta zenbateko desberdintasun egoera sorrarazten dituzten. Zeren eta arkitektook zaleak gara egurrez, baliabide lokal eta berrerabilitako materialez egindako eraikinak eta kale berdeagoak izateko lan egiten –teknika eta estetika tarteko–, baina deserosoagoa zaigu zaintzen eta pertsona helduen aferei aurre egiteko hiri sistema egokietan pentsatzea, beste batzuen eginkizuna dela argudiatuz. Hiria tresna politiko eraldatzailea da gustatu ala ez, eta arkitektoaren eginkizuna ezinbestekoa bezain beharrezkoa da eraikuntza sozial horretan, baldin eta gutasun zabal batean –izaki bizidun ororentzat– pentsatzeko trebatua badago.●

ANALISIA

J. BERHOKOIRIGOIN

Herri oso bat sar daiteke Arbonan

JENOFA BERHOKOIRIGOIN

Erosleak azkenean ez ditu Arbonako etxe eta lursaila erosiko. ELB eta Lurzaindiako kideen eta hauei juntaturiko herritarren aitzinean amore eman behar izan du. Okupazioak oraindik segitzen du, saltzaileak 3 milioi euroren gose segitzen duelako eta negoziaketa fasean okupaziotik bideratu presio, indar, elkartasun eta kolektibotasunak baduelako eragina. Adostasun batera heldu ala ez, urriaren 24an emanen diote bukaera okupazioari, garaipena ospatuz –eta argi utziz lur hauek laborantzara bideratzearen alde segituko dutela erne–. Orotara 124 eguneko okupazioa beraz okupazioaren ohitura arras guti duen eta jabetzari errespetu handia bideratzen dion Ipar Euskal Herrian. Zenbat jende pasa da okupaziotik? Anitz. Ehunka, eta beharbada milaka. Hala ere, irudikatzen nuena baino gutiago. Nago, *Euskal Herria ez da salgai* lema lau haizetara zabaltzen dabiltzan anitz ez direla bertaratu. Konfinamenduak etxebizitzaren arazoa sekulan baino gehiago begibistan ezarri zigula, laster loratu ziren afixa, pintaketa eta ekintza sinbolikoak. Proportzionalki, amorratu eta motibatu anitzez gehiago irudikatzen nituen bertaratzen. Hego Euskal Herritik ere elkartasun gehiago espero zitekeen, lurren desagerpenaren eta espekulazioaren arazo orokortuei herri gisa erantzuteko aukera polita izan zitekeelako Arbonakoa. Nago Lekarozko Aroztegiaren kontrako mugimenduak lortu duen herri-elkartasuna ez duela lortu Arbonakoak. Herri gisa arazo bat dugu hor. Has gaitezen *mugarik ez!* lema gure barrenetaruntz oihukatzen... badelako garaia eta presa herri gisa erantzuteko diruaren izenean lurra –eta hortik herria– suntsitzen dabiltzanei.

Arbonakoarekin ELB eta Lurzaindiak lortu dute konbentzitzen lurraren problema ez dela bakarrik laborarien problema. Bertan batu aniztasuna dugu froga. Lurrama hor ospatuko da aurten, oinarrian eta bere baitan duen kutsu politikoa sekulan baino gehiago bistaratuz. Laborarien eta laborari ez direnen arteko topagune izan nahi du Lurramak; laborantza eta elikadura erabat politikoak direla ohartarazteko gune izan nahi du; eta apairu oro jendarte justuago baten alde egiteko boterea dugula azaltzen dabil. Funtsean, helburu horiek bete ditu okupazioak. Okupazio honi bukaera emanen dio Lurramak urriaren 24an. Hamabost hektarea eremu zabala da, herri oso bat kabitu daiteke bertan! ●

227

ingurumenaren aldeko ekintzaile hil zituzten 2020an munduan. Klima larrialdia areagotzen doan neurrian, "haien lurra eta gure planeta defendatzen duten" pertsonen aurkako indarkeria ere areagotu egiten dela nabarmendu dute txostenaren egileek.

%30

murriztuko dute metano gasen isuria AEB eta Europar Batasunak, 2030erako. Klima larrialdiaren aurrean adostu dute akordioa, eta beste hainbat herrialdek bat egitea espero da.

15

euro gehiago hilean. Hori izan da gutxieneko soldata igotzeko Espainiako Gobernuaren proposamena. CEOE patronala kontra agertu da dagoeneko.

"Ez dakit asmatu dugun esplikatzen zergatik hartu ditugun hartutako neurriak"

IÑIGO URKULLU

"Aitortu behar da agintariok ez dugula denetarako erantzunik, eta horrelako egoera batean, proba-errore metodoarekin jardun dugula", adierazi du Politika Orokorrari buruzko Eusko Legebiltzarreko osoko bilkuran.

2021-09-16

"NEKEZ ULER DAITEKE HAINBESTE DIRU PUBLIKOREKIN OSPATZEN DEN ZINEMALDIAN EUSKALDUNOK HORRELAKO DISKRIMINAZIOA JASATEA"

PANTAILAK EUSKARAZ

Donostiako Zinemaldiko programazioaren %12 baino gutxiago izango da euskaraz, salatu dutenez.

2021-09-16

"Garaiotan oraindik haurdunak ospitaleko hitzorduetara lagunduta joan ahal ez izatea larria eta ankerra da osasun sistemaren aldetik"

HAURDUNALDIA GUREA DA ELKARTEA

TEKNOLOGIA

Troiano berriak

DIANA FRANCO

2021eko abuztuaren 5ean Apple enpresak pedofiliaren praktika eragozteko berak sorturiko gailuetan argazkiak eta mezuak arakatzeko softwarea instalatu behar zuela iragarri zuen. Enpresa teknologiko erraldoiek euren hodeietan praktika hau egin izan dute, baina, gure gailuetan hau egitea aldaketa nabaria da.

Apple-ek dionez pedofiliari aurre egiteko egin du garapena, motibazio miresgarria, eta horren kontra egingo duenik ez da. Eragile askok ordea mesfidantzaz hartu dute berria. 2021eko abuztuaren 19an, Estatu Batuetako Demokrazia eta Teknologia Zentroak koordinatuta gutun bat idatzi zioten nazioarteko gizarte zibileko 91 erakundek Apple-eko buru Tim Cook-i. Adierazi zioten, besteak beste, behin software hori instalatuta hiritarrak zelatatzeko atea irekitzen zuela Apple-ek, eta haurrentzat eta LGBTI kolektiboarentzat arrisku berriak sortzen zituela horrek.

Halako garapenei Troiako zaldiaren antza hartzen diet nik: gauza on gisa aurkezten dira, baina gauza txar asko lantzeko bidea bihur daitezke. Eremu digitalean negozioa sustatzen dutenek ere pedofiliaren itzala sareetan ezabatu nahi dute, baina euren motibazioa ez da haurren ongizatea, haurren merkatu digitala zabaltzea baizik, eta horretarako gurasoek eremu digitala eremu seguru bezala hauteman behar dute.

Troiano berri hauei atea zabaltzea konfiantza kontu bat da. Eta konfiantza definitu daiteke pertsona batek beste baten ekintzen aurrean ahul agertzeko duen borondatearen arabera. Laurin Weissingerrek, Tuffs Unibertsitateko Zibersegurtasun ikertzaileak hausnarketa interesgarria egin du horren inguruan The Conversation webgunean: konfiantza izan dezakegu teknologia korporazio handietan? Galdera beste modu batean ere egin dezakegu: gure ahultasunak agerian uzten dituzten datuak noren eskuetan jarri nahi ditugu? ●

NAZIOARTEA

Irailaren 11ko legatua: Yes we drone

AXIER LOPEZ

2001eko urrian, irailaren 11n World Trade Centerren aurkako erasoak gertatu eta hilabetera, Amerikako Estatu Batuetako Aire Armadako pilotu batek historia egin zuen: drone moderno batekin (The Predator, goiko irudikoa) eraso hilgarria egin zuen lehen pertsona izan zen. Ordutik, droneak XXI. mendeko sarraski selektiboen tresna eta ikur nagusi bihurtu dira, batez ere AEBek izendatutako "terrorearen aurkako gerraren" mantrapean.

AEBetako Gobernuak droneak erabiltzeko eman zuen arrazoi nagusia “zehaztapen kirurgikoa” da. Hau da, teknologia horrek gaiztoak hiltzeko eta albo-kalteak saihesteko, eta zibilei edo “errugabeei” kalteak gutxitzeko oso baliagarria izango zelako. Edo zelakoan, hobe esanda.

2001eko irailaren 11ko atentatuetatik hona, airetik egindako bombardaketek eta droneekin egindako erasoek 22.000 zibil hil dituzte gutxienez, Airwarsek argitaratu berri duen ikerketa baten arabera. Baina, 2014an Ingalaterran sortutako erakunde independenteak ohartarazi duenez, egiazko kopurua 48.000 ingurukoa izan daiteke. AEBek esan dute airetik, gutxienez, 91.340 eraso egin dituztela azken 20 urteotan.

David Rohde New York Times egunkariko kazetaria hainbat hilabetez bahituta izan zuten talibanek Pakistanen 2008eta 2009an. Gatibualdian lehen eskutik ezagutu zuen droneen eragina herritarren artean: "Gatibu izan ninduten garaian Pakistango herritarrekiko begikotasun handia garatu nuen, talibanen eta amerikar teknologia errukigabearen artean harrapatutako zibilekiko. Lurrean den infernuan bizi dira (a hell on earth ingelesez).

Drone bidezko bonbardaketek ez dituzte herrialde baketsurik sortu, ez dute “etsairik” garaitu, eta ez dituzte errugabeen heriotzak saihestu. Beldurra eta gorrotoa handitu besterik ez dute egin, baita pertsonen exodo masiboa eta pobrezia handitu ere. Pantailaren bestaldean, aldiz, norbait hiltzea bideo-jokoetan aritzea bezain erraz eta azaleko kontu bilakatzea lortu dute.

Gerra eta gardentasuna ez dira elkarren lagunak, eta droneen erasoek are gehiago lanbrotu dute gerraren biktima eta kalteei buruzko informazio zehatza eta biktimen aitortza lortzea.

Bi hamarkada igaro dira 2001eko irailaren 11tik. Baina haren legatuak gerra egiteko era ezezik, nazioarteko testuingurua erabat aldatu du. Gobernuekiko mesfidantza jaitsi den maila berera heldu baita giza eskubideekiko errespetua. ●

Elkarretaratzea eta kontramobilizazioa Arrasaten

FOKU / JAIZKI FONTANEDA

ARRASATE / Irailaren 18rako Arrasaten deitua zuen martxa bertan behera utzi zuen Sarek. "Bizi osorako zigorrik ez!" leloa zuen mobilizazioak, presoen, iheslarien eta deportatuen etxeratzea eta Unai Parot euskal presoaren salbuespenezko egoera amaitzea eskatzeko. Audientzia Nazionalak martxa ahalbidetu bazuen ere, VOX-ek eta PP-k gogor kritikatu zuten. "Liskarra nahi dutenei aukera ez emateko", Sarek baztertu egin zuen mobilizazioa. Manifestazioaren ordez, elkarretaratzeak egin ziren Euskal Herrian zehar, tartean Arrasaten bertan. VOXek eta PPk elkarretaratze paraleloak egin zituzten herrian.

Txertoa

Irailaren 15etik aurrera, txertoa jarri ez duten edo txertatzeko prozesua abiaturik ez duten Ipar Euskal Herriko osasun langileei lan kontratua eten zaie, eta soldata galduko dute. Behin-behinean etengo zaie lan-harremana, harik eta txertoa hartzen duten arte.

Heriotzak

Joseba Arregi andoaindarra hil da, 75 urterekin. Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburua eta bozeramailea izan zen, Ardanzaren gobernuan. Alfonso Sastre dramaturgo, intelektual eta militante madrildarra ere hil da, 95 urterekin. 1977tik Hondarribian bizi zen.

Gureak egin

Iruñerriko hainbat sortzailek "Gureak egin" abiatu dute, 15 eta 18 urte arteko gazteei euskaraz zuzenduriko kultur transmisiorako eta sormenerako laborategia. Asmoa ez da aisialdi eskaintza hutsal bat egitea, lotuneak eraiki eta eredu propioak sortzea baizik.

IRLANDAKO URREAREN GATAZKA: HEMEN DIRA MEATEGI BERRIAK EUROPAKO LURRAK HARROTZEN

Munduko Bankuak kalkulatua du lurrari 3.000 milioi tona mineral atera beharko zaizkiola klima aldaketari aurre egiteko beharrezko diren energia eta teknologia 'berdeak' nagusitzeko trantsizioan. Mineral meta horren bilaketak Mendebalde aberatseko herritarroi ere badakarkigu nobedadea: orain hemen ere lehentasuna hartu du meatzaritzak. Irlandako urre meategiek erakusten digute nola datorren gatazka.

PELLO ZUBIRIA

Ekonomia "desmaterializatzera" omen zihoan, *software*-ak *hardware*-rik behar ez balu bezala, eta meatzaritzak mundu osoan bizi duen *boom*-a heldu da gezurra zela erakustera. Meategi berriak edonon: ez soilik lehengo koloniak diren herrialde periferikoetan, baita Iparreko metropolietan bertan ere. Europan, Irlanda bilakatu da meatzekonpainia handien jomuga nagusietakoa. Irlanda osoan –Ipar eta Hego– lurzoruaren %25 baino gehiagotan baimendu diete mineral bila saiatzea. Moletarik, ordea, egin ezin bada arrautzarik hautsi gabe, ezin lurraldearen laurdena hondeatu bertako biztanleak astindu barik, Irlandako Sperrin [irlanderaz Speirín] mendien inguruetan urre meategi handi baten abiatzeak erakutsi duenez.

Kanadan jatorria duen Dalradian Gold Limitedek asmo handiak dauzka Ipar Irlandako Tyrone eskualderako. 2017an 10.000 orriko txosten batekin agintariei baimena eskatu zien urre meategi berri bat urratzeko Greencastle [irlanderaz An Caisleán Glas] inguruetan. Legez katalogatutako paisaia bereziaren jabe den eskualdean berehala martxan jarri nahi dituzte meategia, minerala prozesatzeko planta eta urrea kendutako hondakinentzako biltegia, hamazazpi solairuko eraikin bat adinakoa.

Proiektuaren kontra 37.000 alegazio aurkeztu dituzte bertako biztanleek, argudiatuz meategiak biodibertsitatea suntsituko duela, airea pozoituko, errekak zikinduko –tartean betirako galtze arriskuan den ur gezetako perla-muskuilua bizi den errekak–, hainbat kalte ekarriko dizkiela jendeen osasunari eta baserritarren ekonomiari, eta abar.

V'cenza Cirefícek *The Ecologist* aldizkarian azaldu duenez, emakumeak dira nagusi multinazionalari aurre egiteko ekintzetan, planeta osoko beste borroka askotan bezala. Epaitegietako borrokak, bilkura publikoak, Dalradian Goldek hautatutako eremuaren okupazioa eta nazioarteko beste mugimenduekiko koordinazioa landu dituzte. Emakume horietako batek, Save Our Sperrins taldeko Fidelma O'Kanek bataila txiki bat irabazi zuen Auzitegi Nagusian, urrea garbitzean zikindutako urak erreketara zuzenean isurtzeko baimena eragoztea lortuz.

Alabaina, sententziak ezusteko itsusia ere ekarri zion O'Kaneri, *Belfast Telegraph* egunkariari aitortu zionez: zur eta lur geratu zen jakitean epaiak aurreko beste baimen bat utzi zuela indarrean eta baldintza zorrotzagoetan izanik ere Dalradian Goldek isuri ahalko dituela ur zikinak erreketan. Paperetan ondo josita zeuzkan bere interesak multinazionalak.

Joan den uztailaren 15ean *Irish Times* egunkariak publi-erreportaje zabala eskaini zion Dalradian Golden proiektuari, konpainiaren *Community Relations Manager*-ak sinatua: "Tyroni heldu zaio belaunaldi batean behin baizik agertzen ez den aukera eta probestu behar du". Seme-alaben etorkizunean pentsatzen duten gurasoei ezezkorik eman ezinezko aukera eskaintzen die: "[COVID-19ak eragindako] konfinamenduaren amaierari esker, Tyronen eta Ipar Irlanda osoan aberastasuna zabaltzeko moduan gaude. Dalradian Goldek aukera hau egia bihurtu nahi du industria berri bat sortuz, ehunka lanposturekin eta familientzako bezala negozioentzako epe luzerako onurak ekarriz".

MILITANTEAK MEHATXATURIK

Konpainiari sinestekotan, Sperrin mendien zorupean datza munduko urre, zilar eta kobre hobirik handiena. Hori bai, urre, zilar eta kobreok partikula mikroskopikotan daude harkaitzetan, eta luzaz errentagarriak ez ziren mineralok orain ustiatu ahal izango dituzte lurpeko meatzaritza metodo berriei esker. Konpainiak herritarrei oroitarazi die jada 130 milioi libra (152 milioi euro) inbertitu dituela eskualdean esplorazio, azterketa, ingeniaritza eta ingurumen ikerketetan. 15 milioi libra gehiago gastatuko omen ditu mineralok atera eta tratatzeko kontratatu behar dituen 1.000 langile berriak –350 meategi barruan ariko direnak– formatzen.

Etekin gehiago, kopurutan: meategiak beharko dituen hornidurek bertako komertzioei 750 milioi libra gehiago

DALRADIAN GOLD

LANGILEAK LURPEA HONDEATZEN
harkaitzak kopuru mikroskopikotan daramatzan urre, zilar eta kobre bila.

injektatuko omen dizkie, bertako udalaren proiektuetara gutxienez 4 milioi libra bideratuko ditu, meategia lanean ariko den 25 urteetan proiektuak Ipar Irlandako ekonomiari 750 milioi libra gehituko dizkio…

Urre meategiak ingurumenari ekarriko dizkion hobekuntzak ez dira txikiagoak izango. Zulatutako eremua leheneratuko da lanen hasieratik eta industria amaituta ere. Lurpetik erauzita metatutako hondakin mendiak lur onez estali eta bertako zuhaitzez landatuko dituzte, inguruko muinoen tankeran. Lurpeko urak eta inguruko errekak oso zorrotz zainduko dituzte eta ur zikinduak birziklatuko. Kamioien ordez zinta garraiatzaileak eta erabiliko diren ibilgailu guztiak edo biodieseldunak edo elektrikoak… dena izango omen da puntakoa zeren Dalradianek agintzen du izango dela Europako lehenbiziko meategi karbono-neutroa, karbono apaleko ekonomiari egokitua.

Ez du erraza izan behar hainbeste diru edukitzeaz gain horrelako promesak agintzen dituenari aurre egitea. Ingurumen gatazketan zigortutako militanteen defentsan ari den Frontline Defenders erakundeak aurreratu du adibide bat *When Irish Environmental Defenders Receive Death Threats* ("Ingurumenaren aldeko militante irlandarrak heriotzaz mehatxatuak") artikuluan. Erakundean ohituta daude Afrika, Asia, Amerikak, Ekialde Hurbila edo Eki Europako ingurumen defendatzaileen kasuetan lan egitera, baina gutxiena espero zuten Dublingo bulegotik 150 kilometrora bizi diren militanteen laguntza eskea jasotzea. Fidelma O'Kanek, Dalradiani iaz auzia irabazi zionak, erasoak jaso ditu sare sozialetan, beste batzuek eraso informatikoak nozitu dituzte beren tresnetan eta O'Kanerekin Save Our Sperrins taldean ari den Cormac McAleer aurpegia mozorrotutako hiru gizonek bahitu eta jipoitu zuten. Berrikitan PSNI Ipar Irlandako poliziak taldeko hiru kideri jakinarazi die haien kontrako heriotza mehatxu bat jaso dutela eta zaintzapean jarri dituzte.

Muturreko eta bultzada horiek hasiera baino ez dira, pentsa lezake batek. Europar Batasunak *Green Deal* edo Itun Berdearekin erabakita baitauka etxean bertan indar handiz sustatzea meatzaritza. ●

Europar Batasunak ebatzi du “meategi berde”-en loraldia

Maiatzaren 5ean Lisboak aterpetu zuen “meatzaritza berdea”-ri buruzko biltzarra, zeinetan elkartu baitziren Europar Batasuneko herrialdeetako agintariak, nazioarteko erakundeetakoak, enpresa, unibertsitate eta industria elkarteetako buruzagiak, denak ere Europan mineralen ustiapena azkartzean interesatuak.

2008ko krisi ekonomikoarekin Europako agintariak ohartu ziren –eta COVID-19 pandemiarekin berretsi dute– jarduera ekonomikoak lehentasunezkoak dituen lehengaien hornidura zorrotzago kontrolatu beharra daukatela, datozen arazo geopolitikoen eraginez kolapsatuta geratu nahi ez badute. Bestetik, ekonomia “deskarbonizatu” beharrak izugarri handitu du mineral gosea, nabarmenki litioarena, baina baita urre, kobre eta beste gehienena ere. Jarduera ekonomikoetan suntsitzaileena den meatzaritza garapen iraunkorrarekin lotu nahian, Europar Batasunak *Green Deal* itun berdearen barruan sustatzen du “Meatzaritza berdea”.

Lisboako maiatzeko biltzarraren bildutako agintari, enpresaburu eta akademikoek, atarian protestan zeuzkaten Portugaleko eta Espainiako –funtsean Galiziako– hamalau elkarte herritarrek deituta etorritako herritarrak, meategi proiektu berriek erasotuak sentitzen direnak. Hauen artean nabarmenenak ziren Covas de Barroso herrikoak, Portugaleko herri hartan urratu nahi duten litio meategi erraldoiak mobilizatuta dauzkanak.

Hamalau elkarteok zabaldu zuten 180 elkarte gehiagok ere sinatu duten “Meatzaritza ustez ‘berde’ edo ‘iraunkorraren’ kontrako agiria”. Hona pasarte bat: “Meatzaritza industriak, Europako Batzordeak eta herrialdeetako agintariek diote posible dela “meatzaritza berde” iraunkor eta arduratsu bat, ura, energia eta mineralak eraginkortasunik handienez kudeatuz eta natur baliabideak etorkizuneko belaunaldientzako segurtatuz, eta aldi berean minimizatuz eragin sozial, ingurumenezko eta materialak. Guk diogu helburu horiek guztiak lortzea ezinezkoa dela. Aipatzen dituzten proiektu gehienek dakarte gero eta errentagarritasun txikiagoa izango duten hobiak ustiatzea, hondakin asko sortzea eta kostuak gutxitu eta etekinak handitzearren sustatzea aire libreko meatzaritza”.

NATASHA DONN

Litio meategiaren kontrako protesta Portugalen. "Berde meatzaritza? Berde Barroso dago!", irakurgai pankartan

Elkarteok eskatu dute bazterrera uztea “meatzaritza berdea” eufemismoa eta horrek berekin dakarren *greenwashing* zuriketa berdea eta ordainetan beharrezkoa ikusten dute bai Portugalen eta bai Europar Batasuna osoan ere industriak esku artean dauzkan proiektuei buruzko informazio egiazko, argi eta gardenak zabaltzea.

Iberiar penintsulak Europako meatze berrien mapan garrantzia handia dauka. Espainiako Estatuan aipatzen dira lurpeak arakatzeko 2.000 proiektu eta Portugaleren kasuan herrialdeko lurzoruaren %10ean jada industriak baimena badauka indusketak egiteko. ●



“Ze ona!”

Zu ere harrituko zara, edo ez.
Poztu, edo haserretu. Baina ziur
baduzula interesa eta zeresana.
Jakin-mina eta irizpidea duzulako.
Giroan zabiltzalako.

berria
zuk badakizulako

Ainhoa Gutiérrez del Pozo

ZINEMAGILE ETA KRITIKARI

“

“KONTROLATU DEZAKEZUNA KONTROLATU DEZAKEZU, ETA BESTEA KAOSAK HAR DEZALA”

”

Ikasketetan zientzietatik abiatu zen, baina gero letrak gustatu; eta geroago biak uztartu daitezkeela ikusi. Dokumentalgintzan adibidez, zineman. Ikasi eta ikasi, eta sortu. Sorkuntza prozesuak nola harilkatzen dituen kontatu digu barren-barrenetik, emakume zinemagile artean nola ari den, eta elkarlana-lehia nola bizi dituen.

MIREN ARTETXE SARASOLA · DANI BLANCO

Noiz sortu zitzaizun zinema eta dokumentalgintzarekiko grina?

Arte Ederrak Bilbon ikasi nituen, baina tartean Mexikon egin nuen Erasmus egonaldia eta han hasi nintzen dokumentalgintzaz pentsatzen. Ez dut betidanik jakin horretan aritu nahi nuenik. Ezta zineman ere. Batxilergora arte dena gustatzen zitzaidan eta zientzietara bideratu nindu-ten, nola ez. Baina batxilergoan erabaki nuen ezetz, arterantz jo nahi nuela. Ez nekien zertara, baina banekien hori zela nire eremua. Orain pentsatzen dut agian bi munduak ez daudela elkarrengandik hain urruti, baina garaian ukazio batetik bizi izan nuen... Eta zuzenean pasa nintzen batxilergo artistikotik Arte Ederretara. Oso eremu zabala da eta derrigorrezkoak diren hainbat irakasgaitan arte diziplina ezberdinak probatzen dituzu; eskultura, irudia, pintura... Mexikon egin nuen egonaldian hasi nintzen gehiago hurbiltzen ikus-entzunezkoetara. Bideokamera bat erosi nuen, eta konturatu nintzen tresna hura gustatzen zitzaidala, zerbait kontatzeko.

Zergatik bideoa eta ez eskultura ala pintura?

Bideoan bazegoen zerbait ez zena erabat errealitatea, baina errealitatearekin nahasten zena. Mexikoko pintura klase batean oso argi ikusi nuen hori. Hemen betidanik aritu izan naiz militantzian, Mexikon ere mugimendu sozialetan nenbilen, eta han nengoela gertatu zen Ayotzinapako sarraskia. Poliziak eta militarrek 43 ikasle bahitu zituzten, bederatzi pertsona hil ziren, eta sekulako istiluak izan ziren. Mugimendu izugarria sortu zen Mexikoko unibertsitateetan, asanblada erraldoiak egiten ziren. Asanblada batera ezin izan nuen joan, pintura klasea nuelako ordu berean. Leihotik entzuten nuen nola ari ziren hizketan asanbladako kideak; eta han nengoen ni, margaritak margotzen. Ez nion zentzurik hartzen egiten ari nintzenari.

Horregatik zen egokia bideogintza niretzat. Momentu horretan iruditzen zitzaidan errealitatean egon, hortik grabatu eta hortik sortzea zela bide bat, lotzeko mugimendu sozialetan bizi nuena eta artean egiten nuena. Ordura arte sentitzen

Ainhoa Gutiérrez del Pozo

DONOSTIA, 1994

Zinemagilea da, besteak beste. Arte Ederretan graduatu zen, eta zinema dokumentaleko masterra bukatu berri du, Buenos Airesen. Bi film labur ditu plazaratuak: *Amets(ak) eta Amerikarra(k)* (2017) eta *Medvedek* (2019), eta beste proiektu batzuk bidean. Zinema kritikak idazten ditu aldizkari honetan bertan, baina oraingoan pantailaren beste aldera pasarazi dugu.

nuen nahiko deskonektatuta zeudela nire bi bizitza eremu horiek, biak asko gustatzen zitzaizkidala, baina ez zirela bateragarriak. Eta horrek eman zidan modua munduari buruz hitz egiteko, artetik, modu ez-zurrun batean, lengoaia aski abstraktu baten bidez, baina errealitatearekin lotura zuzena mantenduz.

Eta nola iritsi zinen zure lehen film laburra ekoiztera?

Mexikotik itzuli aurretik bidaia bat egin nuen lagun batekin AEBetara. Muga zeharkatzen ari ginela, migrazioko agenteak galdetu zigun ea ijitoak ote ginen. Sekulako sorpresa izan zen hura! Urtebete generaman Mexikon lehen mailako gizaki zuriak izaten, eta batbatean gure pribilegio guztiak zalantzan jarri zituen pertsona hark. Gure pasaporte espainiarra eskutan, shock egoeran gelditu ginen erantzuterako orduan. Horrek eman zigun elkarrizketak egiten hasteko gogoa. Gizon zuri zis heterosexualak ez ziren subjektuak elkarrizketatu genituen. Eta galdetzen genien AEBen inguruan, askatasunaren inguruan, amets amerikarraren inguruan...

Proiektu hura han geratu zen. Euskal Herrira itzuli nintzenean, urtebetez egon nintzen karrera utzita antropologia bisualeko klaseetara joaten, entzule gisa. Horrek zer pentsatu handia eman zidan. Eta ikasketak bukatzeko gradu amaierako lanari ekin nionean, AEBetan grabatutako material hura berreskuratu nuen. Eta hura lotsa! Konturatu nintzen elkarrizketa haietan bilatzen genuena zela haiek guri esatea guk jaso nahi genuen hura. Galderak oso bideratuta zeuden, eta lehenengoan ez bazen ondo ateratzen, beste era batera saiatzen ginen...

Grabazio horietan benetan interesgarria zena elkarrizketatuen eta gure arteko botere harremana bera zen. Ezin ziren elkarrizketa horiek muntatu geure ahotsa agertu gabe. Agerrarazi behar nuen nola ari ginen galderen bidez bideratzen, zertaz hitz egiten genuen irudia enkuadratzen ari ginen bitartean. Bazen elkarrizketatu bat, adibidez, beltza eta itsua zena. Eta esaten genion "ea, begiratu ezkerrerago... hortxe, hor kamerari begira zaude". Eta lehen galdera izan zen: “Zer da itsua eta beltza izatea?”. Eta berak erantzun zuen hori baino lehen pertsona zela, ez zuela kategoria horien bidez izendatua izan nahi hasieratik. Horra, mamia. Atal horiekin muntatu nuen *Ametsa(k) eta amerikarra(k)*, lehen dokumentala edo ikus-entzunezko etnografikoa izan zena. Ispilura begiratzeko modu bat izan zen.

Baita bigarren film laburra ere?

Neurri batean, bai. Gradua bukatu bitartean Urumea bailarara etorri ginen bizitzera, eta Ereñotzu gainkaldean dagoen baserri bat okupatu genuen. Landa eremura bizitzera etortzean hausnarketa batzuk sortu zitzaizkigun ordura arte izan gabekoak. Uste nuena baino gehiago eragin zigun horrek. Joera handia dago hiritik landa eremua idealizatzeko, eta errealitatea beste gauza bat da. Batez ere, kontrolaren ideiarekin ikusi nuen kontrastea. Hirian saiakera egiten da dena kontrolpean izateko eta gauzak zurrunago gertatzen dira, eta landa eremuan, berriz, kontrol hori ez da posible. Ez zara iristen. Hasieran saiatzen zara, eta nahi duzu etxea erabat txukun egon dadin, eta baratza erabat txukun egon dadin, eta ezinezkoa da. Berez horrek arrakastarako aukera gehiago dauzka! Malgutasun horrek. Zurruntasuna behar ez izate horrek. Kontrolak beti egingo du porrot momenturen batean, eta kaosak ez. Eta hori guztia joan naiz ulertzen hemen bizita.

Bestalde, bailara honetan biztanleria aldatzen ari da: bizi osoa hemen eman duten pertsona helduak daude, gerora etorritakoak, udako turistak... Eraldaketa prozesua nahiko azkar gertatu da, gainera, eta hemengo jendearekiko harremanean lehengo eta oraingo garaien arteko aldea etortzen zitzaidan etengabe burura. Oraindik ere badut hori buruan. Kontua da une horretan Nafarroako Gobernuaren diru laguntza baten bidez aukera sortu zela laburmetraia bat egiteko. Medvedek proiektua aurkeztu nuen, eta aurrera egin zuen.

Zein zen hasierako proiektua, eta nola heltzen da proiektu hori zerbait konkretua izatera?

Ideia, berez, oso abstraktua zen. Izaban filmatzeko baldintzarekin jaso nuen diru-laguntza eta nekien bakarra zen Obabakoak obrarekin lotu nahi nuela. Pentsa. Aurreko proiektuarekin konturatu nintzen niretzat garrantzitsua zela kamera hartzen duzunean eta beste zerbaiti buruz hitz egiten hasten zarenean zure burua kokatzeko modu bat aurkitzea. Aurkitzea zein den gauza horrek zurekiko duen lotura. Pelikulan agertu ala ez.

Niri horrek funtzionatzen dit. Kontua da txikitan behin familiakoekin mendiz

iritsi ginela Izabara, eta orduantxe Montxo Armendarizen *Obaba* filma grabatzen ari zirela bertan. Eta nik esan nion amari film hartan azaldu nahi nuela. Eta amak ezetz, urrutiegi bizi ginela. Gerora irakurri nuen Bernardo Atxagaren *Obabakoak* eta nire buruan liburuko eta Izabako paisaiak nahasten ziren. Eta gidoi hartan nire buruan landa eremuarekiko zeuden topikoak eta *Obabakoak* liburuko pertsonaiak nahasi nituen.

Proposamena onartu zidaten, baina papereko hari zentzua eman behar nion, eta bertara joaten hasi nintzen. Autoa hartu, plazan aparkatu, eta hantxe ni. Eskuinera ala ezkerrera joango naiz? Zer egiten dut nik hemen? Zeren bila nabil? Une horietan ideia bat daukazu eta hori da lotzen zaituen hari bakarra, horri tiraka loturak berriak sortzen joan behar duzu. Beharbada hari hori etengo da, eta berriei eutsiko diezu, ala ez, hari guztiak lehen hariaren inguruan txirikordatuko dira...

Eta zer gertatu zen hariari tiraka hastean?

Hari hark eraman ninduen gizaki-animalien arteko harremanaz hausnartzera. Herrira iritsi nintzenean hartzen kontua zebilen hitzetik hortzera. Bi hartz esloveniar sartzekoak ziren Pirinioetan, espezieak aurrera egin zezan, eta han ez zen beste ezertaz hitz egiten. Ohartu nintzen hari horri heldu behar niola, bai ala bai. Orduan *Obabakoak* liburuko ipuin batekin lotu nuen kontu hura, *Camilo Lizardi erretore jaunaren etxean aurkitutako gutunaren azalpena* ipuinarekin. Haur bat desagertzen da, eta basurde zuri bat agertzen da herrian. Ehiztariek basurdea hiltzen dute, eta haurra ez da agertzen... Eta hartzaren inguruan hitz egiteko modu egokia iruditzen zitzaidan. Zeren herrian hitz egiten zen hartatik ez zegoen jakiterik zer zen egia eta zer gezurra, mito piloa sortu ziren, mamu piloa…

Nire gatazka zen zer neukan nik, kanpotar gisa, horri buruz esateko. Ezin nion gaiari ezikusia egin, baina aldi berean hiritar bat nintzen Pirinioetako hartzaren inguruko polemikaz hizketan. Eta iruditu zitzaidan nire lotura pertsonal hark eraman ninduela hara, eta abiapuntu horretatik erreskatatu nezakeela errealitatea kontatzeko modu magiko bat, eta zilegitasun bat ematen zidala kontatzeko modu hark, hain zuzen, istorio hura nire ahotsean kontatzeko. Ez zuen zentzurik nik polemika hura hauspotuko zuen iritzi bat plazaratzeak. Beraz, pentsatu nuen istorio abstraktu eta kaotikoagoa egitea, eta beraz, arrakastarako aukera gehiago izango zuena [irriz]. Artean ere, kontrolatu dezakezuna kontrolatu dezakezu, eta bestea kaosak har dezala. Eta eragin bat izango badu alde batera edo bestera, ba ondo. Hobeto eragitea ezer ez eragitea baino.

> ***"Medioek etengabe aurkezten dituzte emakumeen filmak intimistak eta bereziak bezala; eta gizonen filmak, berriz, genioaren diskurtsoan bilduta aurkezten dira"***

TALDE LANA, EZINBESTEAN

"Zinemak duen ezaugarri politiko bat da behartuta zaudela talde lanean aritzera. Ikasi beharra duzu gauzak delegatzen, besteen esku uzten. Fakultatean bideratzen zaituzte proiektuak bakarrik aurrera eramatera, hasi eta buka. Eta hori ezinezkoa da. Zinemaren kasuan, gremioka banatuta dago. Eta bai, zuzendari zarenean baduzu gaineko txori-begirada moduko bat. Baina zu baino adituagoa den jende batek ekarpena egiten dio proiektuari, eta argi dago bi begiradek bakarrak baino gauza gehiago ikusten dutela. Horretatik ikasteko aukera daukazu.

Medvedek-en, bi fasetan izan zen errodatzea. Transhumantzian bakarrik joan nintzen, eta gainontzekoan ekipoan. Bertakoekiko harremanean zentratu nahi nuen, eta nik baino askoz hobeto filmatzen duen Peru Galbetek eraman zuen kamera bigarren fasean. Proiektuak hala eskatzen zuen. Katuarenean, berriz, nire begiek egon behar zuten kameraren atzean, bai ala bai. Ez zuen zentzurik gure etxean bost pertsonako ekipoa sartzeak. Horrek esan nahi du irudia ez dela perfektua izango, edo ez behintzat erabat kontrolatua, baina proiektuari balioa beste zerbaitek emango dio, hain zuzen.

Eta *Medvedek* eta gero, Buenos Aireseko zinema eskolan zinema dokumentalari buruzko masterra egin zenuen. Isolamendu zinematografikoa behar zenuela entzun izan dizut...

Oso hedonista dirudi, eta nahiago nuke bestela, baina hala sentitu nuen... Alde batetik, *Medvedek* egitean konturatu nintzen tresnak falta zitzaizkidala. Zinema tresnak. Teknikoak eta bestelakoak. Eta bestetik, Donostiatik Ereñozura etorri ginenean sorkuntzarako denbora irabazi nuen. Hemen egoteak tarte gehiago eman zidan nahi batzuk garatzeko. Proiektore zahar bat geneukan, eta urte bete eman nuen nire kabuz pelikulak ikusi eta ikusi. Eta gogoa sortu zitzaidan zinema niri be-

zainbat interesatzen zitzaion jendearekin egoteko, hitz egiteko, ikasteko. Hemen oso sare indartsua nuen, baina ez zen zinema mundukoa. Orduan Argentinara joan nintzen bi urteko masterra egitera. Bartzelonara joan nintekeen, baina gertuegi zegoen. Ezingo nuen hemengoarekiko deskonektatu, jakinda hain ordu gutxira nagoela. Eta aukera utzi nahi nion nire buruari zinemak leku zentral bat izan zezan. Banekien ez zela betirako, baina nahi nuen tarte batean hala izan zedin.

Eta han jaio zen *Eskutitza katu bati*, bukatu berri duzun film laburra.

Eskolan sorkuntza dokumentaleko ikasgai bat geneukan eta oso interesgarria zen. Nik ordura arte egin nuena izan zen grabatu beharrekoa grabatu, nik ikusi, eta muntatu. Baina ikasgai hartan grabatu ahala kideei irudiak erakusten genizkien, komentatu egiten genituen astez aste, eta asko ikasi nuen. Sorkuntza prozesu bakartia ez izatera igaro zen. Eta paradoxikoki, testuinguru horretan sortu zen ordura arteko nire proiekturik intimoena. Film honetan nire lagun bat ageri da, nire txikitako kuadrillako kide bat, ni baino lehenago joana zena Argentinara. Han elkartu ginenean trantsizio momentu batean zegoen. Gu elkarrekin egon gabe hasi zuen trantsizioa, eta beraz, han batzean, elkarri non geunden kontatu genion. Ni zinema munduan murgiltzen ari nintzen, eta bera trantsizio prozesuan zegoen erabat, eta beraz, prozesu hori grabatzen hasi nintzen. Berriz ere banekien ez zela nire gaia, eta nire lekua topatu beharko nuela. Eta lotura gure harremana izan zen. Gure artean gauzak aldatu ote ziren ala ez, bizi genuen eguneroko horrek nola eragiten zuen gugan, gertatu ahala. Prozesuak kontsentsua lantzea eskatzen zuen, mugak zehaztea, negoziatzea, harremana lantzea, azken finean. Bernardarekiko harremanean eragin zuen, noski, dokumentalak berak. Eta oso oroitzapen ederra gelditu zaigu bioi.

Euskal Herrira bueltan, zinema egiten jarraitzen duzu. Diru laguntzak, sariak, proiektuak, ebazpenak... Lehiaz gaindi sarerik topatu duzu?

Toki askotan gertatzen den bezalaxe hemen ere etengabeko lehia batean gaude, beste zuzendari batzuekin edo beste proiektu batzuekin. Elkarlanak askoz emaitza hobeak emango lituzke, baina horrelaxe dago kontua. Zure proiektua etengabe moldatzen aritu behar duzu deialdi honetara edo hartara aurkezteko. Baina aldi berean, emakume zuzendarien artean

sare nahiko polita dago. Badakigu nondik iritsi garen denak gauden tokira. Badago halako elkar-ulertze bat, eta elkar laguntze bat. Asko ikasi nuen Argentinan industriaz, ekoizpenaz, jaialdi-sistemaz, baina, hemen gauzek desberdin funtzionatzen dute eta bidelagunak behar dira egokitzeko. Eta emakume zuzendariak dira nire euskarria. Maddi Barber, Arantza Santesteban, Marina Lameiro, Irati Gorostidi, Lur Olaizola... denak ditut erreferente eta kide. Maddik egin zuen ekoizpena *Medvedek*-en eta nik beretzako *Urpean Lurra*-n ekoizpen laguntza eman nion, esaterako... Badakigu lehia testuinguru batean gaudela ezinbestean, baina lortu dugu kooperaziorako espazioak sortzea ere. Bakoitzak bere barne borrokak izango ditu norberari eman ez dioten diru-laguntza beste bati eman diotenean, baina elkarren lorpenengatik pozten gara eta ez da gutxi. Hala ere, zentzu honetan gehiago sakondu beharra dago.

Hainbeste emakumezko izen aipatuta, iruditzen zait emakume zinemagile asko daudela Euskal Herrian. Hala da, ala efektu espezialak dira?

Arte ederretan bezalaxe zinema ikasketetan emakumeak dira gehiengoa, baina jaialdietan dauden filmetan ez. Izugarrizko arrakala dago. Eta dokumentalen ala fikzioaren alorren artean ere bai. Dokumental bat askotan baliabide gutxiagorekin egin daiteke, eskura dituzun elementuekin, denbora askoz luzeagoa eskainiz eta ekipo askoz txikiagoarekin. Orduan, txikitasun eta monumentaltasun horren kontrastean, genero arrakala ere hor dago. Baita kritikan ere. Medioek etengabe aurkezten dituzte emakumeen filmak intimistak eta bereziak bezala; eta gizonen filmak, berriz, genioaren diskurtsoan bilduta aurkezten dira eta lantzen dituzten gaiak gai potoloak dira, egiazko gizarte gaiak... Laburmetraiei eta luzemetraiei dagokienez ere gauza bera gertatzen da. Betikoa da. Ez da nahikoa zinematik aldaketa eragitea. Gizarteak ere begirada aldatu behar du. Gurpil zoro bat da.

Baina badago kontu interesgarri bat gertatzen ari dena: fikzioaren eta dokumentalaren arteko mugak asko ari dira lausotzen, eta dokumentalean hasi garen jende askok fikziora begiratzen dugu tresna berrien bila batere konplexurik gabe. Batek errealitatearen indizea eskaintzen badizu eta besteak magia puntua, zerk dio ezin direnik nahastu? ●

Iritziak

Lurreratzen

DAVID BOU
DIRECTA-KO KAZETARIA

Udako oporrak amaituta hasi da ikasturte berria, eta polemikaren erdigunean dago Bartzelonako El Prat aireportua handitzeko proiektua. Abuztuaren 2an Kataluniako eta Espainiako gobernuek akordioa lortu zuten, hedatze lanak Ricardako aintziraren gaineko eragin ekologikoa "minimizatuz" egiteko, baina horren ostean gidoiak ustekabeko norabide aldaketa izan du.

Raquel Sánchezek, PSOE-Unidas Podemoseko Garraio ministroa eta PSCko alkate ohia Gavako Udalean –terminalen ondoko udalerria–, ustekabeko prentsaurrekoa batean iragarri zuen 1.700 milioi euroko inbertsioa bertan behera geratuko zela. AENAk 2022-2026 aldirako Aireportuak Arautzeko Dokumentutik (DORA) ezabatuko ditu Bartzelonarako planak. Plana iraileko azken Ministroen Kontseiluan onartzea aurreikusita dago.

PSOEk ERC higatzeko propio pentsatutako mugimenduez haratago, Convergència 'desagertuak' errepublikanoak baldintzatzen ditu oraindik ere. Enegarren marka berriaren azpian ere convergenteak ez dira beren betiko apustutik mugitu: azken hamarkadetan lurraldea zementuz eta prekarietatez bete duen eredu ekonomiko harrapari eta desarrollista. Badirudi Aragones presidentea ez dela ausartzen inbestidura hitzaldian adierazi zuenari leial izaten, politika "feministen, ekologisten eta eraldatzaileen" alde egingo duela esan baitzuen. Aireportua handitzea eta 2030erako Bartzelona-Pirineus Neguko Olinpiar Jokoen hautagaitza dira ikasturte politiko honetarako herrialde mailako bi proiektu nagusiak.

> Aireportua handitzea eta 2030erako Bartzelona-Pirineus Neguko Olinpiar Jokoen hautagaitza dira ikasturte politiko honetarako herrialde mailako bi proiektu nagusiak

Aireportuaren kasuan, handitzearen helburua pandemia aurreko 52 milioi bidaiariak 70 milioira igotzea da, eta kontinenteen arteko hegaldien %8tik %15era igarotzea. Horretarako, ez dute aurreikusten soilik hirugarren pista 740 metro luzatzea eta interes natural bereziko gune babestu bat suntsitzea. 195 hektarea gehiago urbanizatu nahi dituzte ere, sei metro geltoki berri, parke logistiko bat, hotelak, jatetxeak, aparkalekuak eta merkataritza eta negozio guneak eraikitzeko.

Horrek guztiak berotegi-efektuko gasen emisioak %33 handitzea lekarke 2019ko isurketekin alderatuta; urte horretan, Prateko sektore aeronautikoaren CO_2 emisioak 8,4 tonakoak izatera iritsi ziren, Barcelona Regional Agència de Desenvolupament Urbà erakundearen arabera. Datu horiekin, azal diezagutela nola beteko duten 2030erako CO_2 isurketak % 55eraino murrizteko konpromisoa sektore aeronautikoak eta Europar Batasunak.

Bartzelonako Unibertsitatearen ikerketa baten arabera, Kataluniako biztanleen %41 aireportua handitzearen aurka dago, eta %26 baino ez alde. Nabarmentzekoa da ERC, Junts, CUP eta Comuns alderdietako hautesleen aurkakotasun zabala. Azken hilabeteetan martxan jarri den mobilizazio sozialak datu hori baieztatzen du: 120 gizarte erakundek baino gehiagok, auzo elkarteek, nekazari eta ekologistek, bat egin dute proiektua bertan behera uztea eskatzeko. Biodibertsitatea eta pertsonen osasuna kaltetuko lituzkeela salatzen dute, eta abiazio zein energia sektoreak krisian daudela. Sektore horiek dira gainera planeta astintzen duen larrialdi klimatikoaren arduradunak, hein batean.

Beste behin ere, Kataluniako herriak bere ordezkari politikoen aurretik dagoela erakutsi du, zeintzuek larrialdiko lurreratze bat saiatu beste aukerarik ez duten jada. Lotu gerrikoak. ●

Eta orduan, ez dago esperantzarik?

PAULA ESTÉVEZ

ANE ABLANEDO LARRION
IRAKASLEA

Psikoanalisiari buruz bakoitzak eduki dezakeen iritzitik haratago, ukaezina da Freuden teoriek gure mendebaldeko kulturan eta munduikuskeran izan duten eragina, errotik aldatu baitute jendeon barne-mundua ulertzeko modua, edota buru nahasmenduak esplikatzeko arrazoibidea. Mugarria, *inkontzientea*-ren aurkikuntzak markatu zuen. Ikustera eman zuelako badela gure baitan ezkutuko zonalde ilun eta ospel bat, non bizi baitira gure *ni*-a osatzen duten indar heterogeneo eta kontraesankorrenak, kontzientziarentzat ezezagunak izan arren, gure jokamoldearen gaineko ia aginte osoa izaterainoko boterea daukatenak gugan.

Freud neurosiaren jatorriaren bila ari zelako hasi zen kontzeptu hau sakonki ikertzen, eta hasteko, inkontzientea bi parte ezberdinek osatzen zutela ikusi zuen. Batean, gure berezko senarekin zerikusia duen guzia legoke, *plazeraren printzipio*-pean funtzionatzen duena, eta desio eta behar naturalen satisfazioaren bila aritzen dena instintiboki. Bestean, instintuak kanpoko errealitate frustragarriarekin talka egitean erreprimitu behar izan diren nahiak-eta leudeke, gure eremu kontzientetik erauzi behar izaten ditugunak, lasai bizi ahal izateko, eta errepresioa benetan eraginkorra izateko. Neurosia, beraz, mina saihesteagatik edota zigorraren beldurrez gure natura erreprimitzen dugunean sortuko litzateke.

Aurkikuntza hauen ondorioak, begi bistakoak bezain aztoratzaileak ziren. Errealitateak pertsonen behar instintiboen kontra egiten bazuen, eta horien errepresioa baldin bazegoen nahasmendu neurotikoen abiapuntuan, garbi zegoen nor zen norbanakoaren eta sistema sozialaren arteko auzian erruduntzat jo beharrekoa: gizartea. Baina Freud ez zegoen honetarako prest. XIX. mendeko Austriako burgesiako kidea zen, eta arazo zitzaion berea ere bazen boterearen salaketa egitea, edota neurosi kolektiboaren soluzioa eraldaketa politikoa-sozialean bilatu behar zela aldarrikatzea.

Horrela –eta horregatik– asmatuko zuen *heriotz instintu*-arena. Bere teoriaren lehen formulazioa irauli, eta goitik behera aldatu zuen, gauetik goizera, ordura arte defendatua zuen instintuari buruzko ikuspuntua. Bat-batean, eta ustez *displazera* bilatzen zuten bere paziente masokisten berezitasunetan (baizik ez) oinarrituz, bulkada perbertsoez osatuak irudikatu zituen gure baitako korronte ezezagun horiek, instintuaren berezko izateari egotziz nolabait pertsonen sufrimendua.

Horrela, autoritario eta errepresiboa zen ordena soziala errugabe izendatzea lortzen zuen, jendearen miseria psikologikoan eduki zezakeen ardura orotatik errugabetuz, eta zibilizazioaren mesedetan gure naturaren errepresioan oinarritutako heziketa bat beharrezkoa zela justifikatuz, bide batez.

Psikologiaren historiaren pasarte hau lerro hauetara ekarri nahi izan dut, irudika dezakezuena baino handiagoa delako daukan inplikazio politikoa, eta gure egunetaraino iristen direlako *heriotz instintua*-ren existentzia aintzat hartzen duen ikuspuntu honen ajeak. Heziketari oraindik ematen diogu, haurren instintua, natura eta izaera otzantzearen eginkizuna, erraietaraino barneratua dugulako gizakiak ez ginatekeela, bestela, gizarte zibilizatuan bizitzeko gai. Ohartu gabe horixe dela zibilizatu baino, neurotiko eta patologiko bilakatzen gaituena.

Freuden garaian bezala gurean ere, errepresioan oinarritutako heziketa *statu quo*-a onartzeko prozedura hutsa da, gizakiari eragin beharreko tara bat, sano egonda sekula onartuko ez lukeena gozoki irentsi dezan.

"Eta orduan, ez dago esperantzarik?", galdetu zion bere buruari Wilhelm Reich-ek. "Bai, badago. Gure porrotaz kontziente izateko bezainbesteko duintasuna eta adorea erakusten badugu, bakarrik". Bada, horixe. ●

Yo soy español

JOSE IGNAZIO ANSORENA
TXISTULARIA

Yo soy español. Zuetako asko ere bai eta beste euskaldun batzuk frantsesak. Orain gutxi, inork egunkarian kexa idatzi zuen, kontzertu batean bi obra euskaraz bakarrik aurkeztu nituelako: "*Pido un poco de respeto para los que no hablamos euskera*".

Donostiako Udalak irrigarri geratzeko ez du aukera askorik galtzen. Azkenekoa *Zarataren ordenantza*, orain gutxi berritua. Irakurtzean jabetu nintzen gure arau eta lege guztiak espainolez –oso espainol txarrez– idazten direla eta, zorterik badago, euskaratu egiten direla. Gaixoak gure erakundeetako itzultzaileak, erdarazko munstro linguistiko horiek erabat kontrara (soilik linguistikaz ari naiz) doan beste hizkuntzara itzuli beharrez. Eskabidea egin beharko genuke: gutxienez erdiak jatorriz euskaraz idaztea eta, zortea dagoenean, espainolera itzultzea. Denok, baita espainol elebakarrak ere, irabaztun gertatuko ginateke.

Iñaki Oiartzabal –berak Oyarzábal idazten du– kexu agertu da, Iturgaitz –berak Iturgaiz idazten du– maisuaren ildoari jarraiki: euskal ikastetxeetan espainoltasunaren aurkako gorrotoa lantzen dela. Eta gaineratu: "Homosexuala naiz eta Arabako PPko presidente. Niri pasada ematen badidate homosexuala izateagatik, neure ideiengatik, pentsatzen edo sentitzen dudanarengatik egitearen desberdina al da?".

Onintza Enbeitak *Berria*-ko *Amorru garaia* artikuluan eta eraso homofoboen harira, dio badela amorrura pasatzeko garaia. Oiartzabalen erregela erabilita, itzul liteke amorru hori euskararen aurkako erasoa egunero sentitzen dugunontzat. Ez nator bat Onintzarekin. Amorruak batez ere duenari egiten dio kalte eta ekarpen sozial urri ematen du. Etengabe jardutea da eginkizuna: arlo guztietan pentsamendu kritikoa lantzea, sentsibilitate finean heztea, elkarren errespetua errainetan itsastea, zapaltzaileari ikusaraztea gure kailuak sakatzen ari dela...

Oiartzabal, Iturgaitz eta kuadrillarentzat zer da espainol izatea? Administratiboki bagarelako. Bandera gorri-horia dantzan ikustean zirrara sentitzea? Polizia patriotikoa ontzat ematea? Bozketa baten antolatzaileak sedizioz epaitzea? Espainoltasun hori zaharkitua dago eta ez da gazteentzat erakargarria. Sabinoren ipuinak bezala.

Eskoletan ez da dena ongi egiten, jakina. Ezta gure etxeetan ere. Niri oso grabea iruditzen zait, esaterako, haurrak zaratan heztea eta maiz sentitzen dut horixe egiten dela euskal eskoletan. Berdin da *Yo soy español* edo *Eusko gudariak* grabazioan jartzea: kanpoko zaratak berarekin dakar barrukoa. Zarataren ordenantzak ez du hori aldatuko. *Pido un poco de silencio para los que hablamos euskera.* ●

Krisi esaten diote

ITZIAR BARDAJI GOIKOETXEA
IRAKASLEA

Google-en *krisi* sakatuta: “Gai edo prozesu baten garapena arriskuan jartzen duen egoera larri eta erabakigarria”.

2015eko errefuxiatuen *krisi*-aren hasieran, errefuxiatu hitzak bazuen oraindik eskubide arrasto bat bere esanahiari atxikita. *Refugees welcome* garaian, Greziara iristen ziren siriarren harrera duina exijitzeaz gain, errefuxiatu hitzak lehen eta bigarren mailako migratzaileak bereizten dituela salatzen genuen. Mendebaldeko estatuen interesek liraindutako irizpide zurrunek aitortza ukatzen dietela, besteak beste, inperialismoak sortutako errefuxiatu ekonomikoei.

Gerora, ikusi genuen errefuxiatu haien gizatasuna Europako kanpamendu negargarrietan nola joan zen urratzen. Arrazismoak indarrez egin zuen dirdira. Gaur, Afganistandik ihes egiten duten pertsonak –berriro idatziko dut: pertsonak– ez dira Turkiara ere iritsiko, ezingo dute asiloa eskatu Europar Batasunean. Hesi eta “segurtasun” neurri berriak ikusirik, zibilak baino, Europara guda bera datorrela dirudi.

Gaur, lotsa gabe, herria beharturik utzitako migratzaile guztiak, errefuxiatu izateko baldintzak bete edo ez, berdin tratatzen ditu Europak: mehatxu bezala. ●

Otsoaren aurrean ez zaudete bakarrik

NEKANE TXAPARTEGI
IHESLARIA ETA KAZETARIA

Azteka Inperioaren mendekotasun kolonialaren 500. urteurrenean, ordezkaritza zapatista bat Europa bisitatzen ari da. Helburua: mugaz gaindiko sareak sortzea eta ikuspegi orokorra izatea. 421 deituriko eskuadroia ez da sinbologiazko hizkietan gelditu. Lau emakumek, bi gizonek eta 'beste' batek (*otroa*, esaten dute zapatistek gazteleraz) osatutako taldeak, hainbat ikasgai eman dizkigu egun gutxi hauetan.

"Borroka berdinak egiten ari gara". Hitz horiekin agurtu gintuen zapatisten bozeramaile batek Basileako kanpalekuan. Abuztuaren 27-29 bitarte, elkarren borroka eta iraultza txikiak ezagutarazteko parada izan genuen. Hitz apalez eta kidetasunez, zapatistak ez baitzaizkigu irakastera etorri, nola borrokatzen dugun ikustera eta entzutera baizik, gero bueltan beraien herrian kontatzeko.

Lehenengo ekintza epaiketa feminista da, egitura patriarkalen menpean dauden guztiek aukera dute egileak eta zapalkuntzak publikoki salatzeko. Emakumeek eta genero disidenteek hainbat hizkuntzatan egin zituzten salaketak. Lupita, Yuli, Ximena, Carolina, Mari Jose, Bernal eta Felipe begira, entzuten, beren kaieretan apunteak hartuz.

> Zapatistak ez baitzaizkigu irakastera etorri, nola borrokatzen dugun ikustera eta entzutera baizik, gero bueltan beraien herrian kontatzeko

Handik Jurako mendietara joan ziren eskuadroiko zazpi kideak, eta beste bi egunez Zürichen izan genituen solaskide. Hitz gutxikoak zirela esan ziguten zapatista emakumeek, ekintza edo praxi zaleak direla gehiago. Baina esandako hitz gutxi eta xumeetan eman zizkiguten zertzelada ederrak... Beren borroken eta egiteko moduen adibide praktikoak kontatu zizkiguten. Nola parte hartzen duten antolaketa politikoan eta gizarte mailan. Patriarkatu hitza aipatu gabe biolentzia estrukturalari nola egiten dioten aurre. Galderen tartean, ihes egiten zioten gure borrokari buruzko proposamenik egiteari: "Zuek bilatu behar duzue zuen bidea. Asko poztu gaitu emakume askok borrokan diharduzuela ikusteak. Baina konturatzen gara ze zaila den antolatzea eta horregatik gure mezua: ez zaudete bakarrik". Hori esatera ere etorri gara bidai honetan...

Beste hitzaldi batean, honakoa galdetu zien batek: Ze abantaila eta desabantaila ikusi dituzue zuen eta gure egoeraren artean? "Zuek otsoa oso hurbil daukazue eta horrek borroka eta antolaketa zailtzen du, guk otsoa aspalditxo aldendu genuen". Zapatistak sistema kapitalistatik kanpo eraiki zuten autonomiari buruz ari ziren. 1994. urteko altxamenduaren ondoren herritik eta herriarentzako eraiki eta autogobernatzen baitute, otsoarengandik urrun... ●

ARGIA EGUTEGIA 2022

Egunero efemeride bat.
Burujabe garenez, historia guk ere idatz dezagun.

10€
+4€
bidalketa
gastuak

Era guztietako gertaerak topatuko dituzu orriotan, egunez egun. Asko hedabide handienek beren errepaso historikoetatik kanpo uzten dituztenak dira. Injustizia isilaraziak eta horien aurkako altxamenduak, langile borroka azpimarragarriak, ekintzaile sozialen ekimen anitz edo Euskal Herriko panorama politikoa astindu zuten albisteak.

AURRE-SALMENTA:
AZOKA.ARGIA.EUS · 943 37 15 45

Audio-liburuak

Euskarazko literatura idatzia ahotsez emana, nola dago panorama?

Ez da kontu berria idatzizko literatura ere entzunez jasotzea. Audio-liburuen fenomenoa, hainbat herrialdetan dagoeneko sustraitua dagoena horren jarraipena baino ez da. Inguruko hizkuntzetan dagoeneko oparoa da literatura irakurria entzuteko aukera, baina euskara oraindik ez da plaza horretara jalgi, ez orain arte bezala.

PERU IPARRAGIRRE DANI BLANCO

Pandemia hasi aurretik ere goranzkoa zen audio digitalen kontsumoaren joera. Mugikorrek eskaintzen duten aukerarekin podcastak eta audio-liburuak entzutea ohikoa bilakatu da garraio publikoan, autoan, lotara joan aurretik, gosaldu bitartean eta etxea garbitzen ari garela. Gero eta errazagoa baita gogoko saioak eta liburuak nahieran entzutea, irrati tradizionalak ematen duena baino hautatzeko aukera handiagoarekin. Audio-liburuen fenomenoa ere lehertu egin da azken urteotan, are gehiago pandemiak ekarri dituen itxialdien, berrogeialdien eta aurrez aurre sozializatzeko aukeren murrizteten ondorioz. Euskarazko audio-liburuak entzun nahi dituenak, ordea, hutsunea topatuko du beste hizkuntzetan oparotasuna dagoen lekuan. Aste honetan bertan hutsune hori betetzen hasteko bidea egin daitekeela erakutsi dute EITBpodcast atarian argitaratutako liburuek, adibidez, baina ikusteko dago zer ekarriko duen etorkizunak, audio-liburuen ekoizpena sistematizatuko ote den, eta zein baldintzetan.

AUDIO-LIBURUAK EZ DIRA EUSKARAZ MINTZO

Literatura irakurria aski zabaldua dago egun, mundu anglo-saxoian nabarmenki, baina baita Espainiako zein Frantziako estatuetan ere. Horren adibide argia da Audible plataforma estatubatuarra, esaterako. Joan den mendearen azken urteetan sortua, 2008an Amazon erraldoiak erosi zuen 300 milioi dolarren truke. Podcasten eta iPoden lehen loraldian azkar hedatu zen aspalditik existitzen zen audio-liburuen formatua. Egun, Estatu Batuetako audio-liburu ekoizle eta banatzaile nagusia da Audible, baina ez Estatu Batuetakoa soilik, nazioartean ere itzal handia hartu baitu azken urteotan.

Banaketa egiteaz gain ekoizpenean ere parte hartzen du Audiblek, horretarako sortutako Audiobook Creation Exchange plataformaren bitartez. Bertan, irakurleak, egileak eta argitaratzaileek elkarren berri izan dezakete audio-liburuak sortzeko eta gero Audibleren bitartez zabaltzeko. Plataformak hamar urte bete ditu aurten. Lehen zortzi urteetan 160.000 audio-liburu baino gehiago ekoitzi ziren haren bitartez. Merkatu plaza horretan, ordea, enkantean jartzen dira lanak, nork egingo merkeago. Horrek ekoizten diren audio-liburuen kalitatea eta langileen lan-baldintzak kaltetzen dituela kexu dira asko.

Audio-liburuak entzuteko plataforma gehiago ere existitzen dira, Storytel, esaterako. Gehienetan hilabetekako harpidetza sistema bidez funtzionatzen dute, nahiz eta batzuetan ale solteak ere eros edo aloka daitezkeen. Horien alternatiba libreak ere badaude, domeinu publikoko lanak topa daitezkeen Librivox, besteak beste.

Horietan guztietan, ordea, ez dago apenas euskararen presentziarik. Audiblen topa daitezke euskarazko ale bakan batzuk, haurrentzako ipuinak ia guztiak, eta haien lokuzioaren kalitatea zalantzagarria da. Hortik kanpo, beraz, urteetan zehar aski sakabanatuta agertzen joan diren audio-liburu eta bestelako pilula solteak topa daitezke. Liburuen artean beharbada ezagunenetakoak izango dira Joseba Sarrionandiaren *Hau da ene ondasun guztia* (Txalaparta / Esan Ozenki, 1999) eta Igelak 2005ean Xabier Olarraren itzulpenean argitaratutako Raymond Queneauren *Estilo ariketak* liburuak dakarren CDa.

Hala ere, Internetera jo behar gaur egun audio-liburuen bila. Ez da erraza euskaraz nazioartean ohikoa bilakatu diren moduko liburu osoak topatzea, gehiago dira ipuin eta poema solteak. Susa argitaletxearen webgunean eta Armiarma.eus atarian topa daitezke hainbat testu irakurri, horietako asko idazlearen ahotsean. Wikipedian ere entzungarri daude literatur testu batzuk, horiek ere idazleen ahotsetan. Booktegi.eus proiektuaren webgunean eta Pako Eizagirreren Aittu.eus atarian ere entzun daitezke literatur testuak. Alternatiba eta utopien etorkizuna irudikatzen duten ipuin laburren *Zirriborroak eta gero* bildumako fabula guztiak ere entzungai daude idazleen ahotsetan, proiektuaren webgunean. Etxegiroan.eus webgunean ere asko dira entzun daitezkeen ipuin eta liburuak, haurrentzako zein helduentzako. Hamaika urte beteko ditu webguneak laster.

HAMAR URTEZ XEREZADE

Bestelako atari batzuek ere osatu dute, pixkanaka, katalogo bat. Modu amateurrean egin du ibilbidea Xerezaderen Artxiboa podcastak, batez ere narrazioen irakurketa dramatizatuak eginez. Aurtengo ekainean hamar urte bete ditu Ana Moralesen eta Jasone Larrinagaren proiektuak.

Moralesek dioenez, txikitatik gustatu izan zaio literatura entzutea, baina etxe barruko kontua izan da luzaro: "Txikitan nagusiek eta anai-arrebok elkarri irakurtzen genien... Banekien audio-liburuak zeudela, baina nire inguruan ez ziren existitzen. 2006an lagun batzuek iPod bat oparitu zidaten, eta batek azaldu zidan horrekin podcastak entzun ahal izango nituela. Orduan hasi nintzen aztertzen zer zegoen eta ikusi nuen podcast asko zeudela literatura irakurria eta dramatizatua zirenak. Beti esaten nion neure buruari horrelako zerbait euskaraz egin zitekeela". Eta beste inork egin ezean berak egingo zuela pentsatu zuen. Nondik hasi ez zekien, ordea, eta taldean egin beharreko lana iruditzen

XEREZADEREN ARTXIBOA

Xerezadejaian idazleak eta lagunak elkartzen dituzte irakurketa publiko batean.

zitzaion. Lankide izandako Jasone Larrinaga batu zitzaion orduan asmora.

Etxean horretarako tresnarik ez zutela-eta Bilbo Hiria irratikoengana jo zuten. Mieltxo Monfort zenak, bertako zuzendariak, harrera beroa egin zien. Tartean Saioa Gabikagojeaskoa ere batu zen proiektura. Xerezaderen Artxiboa irratiaren estudioan grabatzen zuten hasieran, eta gero etxean editatu. Bost urte ingururen buruan, ordea, etxean grabatzen hastea erabaki zuten, baliabide egokiak eskuratuta. Gaur egun Arrosa sareak banatzen du eta blog bat ere jarri zuten martxan, orain xerezade.org webgunea bilakatu dena. Larrinagak eta Moralesek jarraitu zuten saioa egiten, maiztasuna gutxitzen joan den arren. Orain, ahal dutenero egiten dute, baina saiatzen dira hilabetean bat argitaratzen: "Gure apustua da inoiz ez uztea egiteari".

Ehun audiotik gora argitaratu dute urteotan zehar. Duela pare bat urtetik, gainera, audioak emakumeek egindako artelanez lagunduta ematen dituzte. Internetetik kalera ere salto egin izan dute, Xerezadejaiak antolatuz, literatura ahoz gora irakurriz lagunekin gozatzeko jendaurreko irakurraldiak. 2020an egin behar zuten hurrengoa, baina bertan behera geratu zen, espero dute datorren urtean egin ahal izango dutela zerbait.

Moralesen aburuz badirudi mesfidantza modukoa dagoela mota audio-liburuen bidezko irakurketari, paperean irakurri behar dela uste da. "Baina hori oso oraintsuko pentsaera da, literatura belarriz gozatzea oso aspaldiko kontua da, komentuetan, irrati-nobelak... ez da batere nobedadea. Niretzat oso gozagarria da ozen irakurtzea, konturatzen zara beste gustu bat ateratzen diezula gauzei eta aurkitzen dituzula bestelako ñabardurak, etenekin, enfasiekin...".

Audio-liburuen kasuan, uste du argitaletxeek apustua egin beharko luketela: "Agian beldur izango dira eta inbertsioa egiten ez dira ausartzen. Aurreiritziengatik ere izan daiteke. Ausartu beharko lirateke".

HUTSUNEA BETETZERA

2018an, sortu eta lau urtera, Eusko Jaurlaritzak martxan jarritako liburu digitalak mailegatzeko eLiburutegia atarian euskarazko 300 audio-liburu jarriko zituztela iragarri zuten, irakurtzeko zailtasunak dituztenentzat pentsatutako Daisy formatuan. Gaztelaniaz Daisy formatuko beste hainbeste liburu daude eLiburutegian, eta Daisy formatuan ez dauden 80 audio-liburu gehiago. Moralesek dioenez, eLiburutegian audio-liburuak ez badaude oro har ez daudelako da.

Hutsune hori nabarmentzen joan da azken urtean, eta badirudi pixkanaka euskarazko audio-liburuen ekoizpenean dagoen hutsuneari arreta jartzen hasi direla sektoreko eragileak eta instituzioak.

Urte hasieran, Eusko Jaurlaritzak Dosdoce enpresa kontratatu zuen euskarazko audio-liburuen ekoizpenaren eta merkaturatzearen inguruko txosten bat egin zezan. Halaber, aurten sortutako EITBLab laborategiak ere audio-liburuen ekoizpenari arreta jarri dio.Aste honetan bertan argitaratu dituzte lehen aleak.

Iñaki Beraetxe aktore, zuzendari eta bikoizlea, aldiz, bere kasa hasi zen audio-liburuak grabatzen, eta gero, hortik abiatuz, On Time ekoiztetxeak estudiotxo bat eraiki du, audio-liburuen ofizioa ikasi eta lanean hasteko asmoz. Gaur egun norbere burua grabatzeko baliabide teknikoak eskuratzea erraza bada ere, ekoizpen profesionalak egiteak baliabide garestiagoak, denbora eta lana eskatzen du. Bieuse bikoiztaile euskaldunen elkarteko lehendakaria ere bada Beraetxe, eta dioenez ez dago oraindik audio-liburuak arautzen dituen hitzarmenik eta merkatua bera ere nahiko kaskarra da nazioartean. Aktore moduan lan handia eta mardula eskatzen duela dio. Oro har, azken emaitzako ordu bat grabatzeko hiru ordu behar direla kalkulatzen dute.

> "Norbaitek zezena adarretatik hartu behar du: administrazioak, idazleek eta editoreek"

Katalunian aski garatuta dago audio-liburuen ekoizpena. Hango profesionalekin hitz eginda, Beraetxek dio haiek garrantzia handia ematen dietela egin beharreko askotariko lanei: liburua irakurri, narratzailea eta elkarrizketak zehaztu, casting egokia egin, interpretazioa nolakoa izango den erabaki... Izan ere, kontuan izan behar da normalean kaskoetatik entzungo dela, eta gertutasun bat eduki behar da. Soinu efektuei, masterizazioari eta ekualizazioari ere arreta handia jarri behar zaio.

Irakurketari dagokionez ere berezia dela dio, liburua irakurtzen jakin behar baita: "Desafioa izan da askorentzat halako lanak egitea". Bikoiztaileen elkartean bazirudien audio-liburuena lanerako aukera bat izan zitekeela, meharra izan arren. Hala ere, aparraldia zirudiena geldirik dago orain, zoritxarrez. Egindakoak zenbaterainoko arrakasta izango duen ere ikusteke dago oraindik.

EITB-REN LEHEN LABEKADA

EITBLabeko Itziar Arangurenek dioenez, euskal gizartearentzako balore publikoa duten produktuak zein izan daitezkeen aztertzen du laborategiak, batez ere euskarak daukan arrakala digitalari erreparatuz. Mundu guztian audio digitalaren kontsumoak izan duen gorakadaren erdian euskarazkoak ez zirela ekoizten ikusi zuten.

Ondorioz, egoera aztertu eta audio-liburuak ekoizten hasteko harremanak egiten hasi ziren. Horrela jabetu ziren On Time ekoiztetxea ondorio berera heldu zela eta dagoeneko urrats batzuk ematen ari zela: “Norabide berean elkarrekin arraun egitea erabaki genuen”.

Aipatutako balio publiko hori ahalik eta gehien zabaltzeko tituluen aukeraketa aproposa egitea izan zuten lehen pausoa: "Batez ere lan desberdinak aukeratzea izan da helburua, jende desberdinari gustagarriak egingo zaizkionak".

Audio-liburuak ekoizteko eskaria On Timeri egin zioten, beraz. Arangurenek dioenez, lortu duten emaitza nazioarteko estandarren parean edo gainetik dago: “Euskarari kalitatezko produktu bat eman nahi diogu; oso-oso ongi landutako audio-liburuak ekoitzi dituzte”.

Hiru fase izango ditu esperimentuaren lehen zati honek. Aste honetan argitaratu dituzte lehen hiru liburuak EITBpodkast atarian: *Lo potolo* (Alberdania, 2019) haurrentzako lotarako ipuin laburren bilduma. Albert Sanchez Piñolen *Larrua hotz* (Txalaparta, 2008) zientzia-fikziozko nobela, Lander eta Zigor Garrok itzulia, Eider Rodriguezen *Bihotz handiegia* (Susa, 2017), Euskadi Irratiko sei emakume esatarik irakurri dutena, eta azkenik Uxue Alberdiren *Jenisjoplin* (Susa, 2017), idazleak berak irakurrita. Bigarren fasean *Go!azen* telesailaren bueltan ateratako lau liburuak eramango dituzte audiora. Kasu horretan, telesaileko aktoreek egin dituzte lokuzio lanak. Lehen labekada honen azken zatia azaroaren 25ean etorriko da, oraindik publiko egin ez duten euskarazko nobela baten audio-liburua argitaratuko baitute, emakumeen aurkako indarkeria gaitzat duena.

Liburuak hautatzerako orduan audio-liburuei orokorrean aplikatzen zaizkien irizpideak kontuan izan dituztela dio Arangurenek, hau da, audioaren izaera iheskorrari heltzen dioten lanak izatea. Horretarako idazle askorekin gogoeta egin dute, eta idazleen jarrera pozgarria izan dela dio. Genero, erritmo eta gai desberdinetako liburuak aukeratzeko apustua egin dute, ahalik eta jende gehienarengana heltzeko.

Irakurzaletasuna bultzatzeko azpi-helburua ere badu audio-liburuak argitaratzeak. Izan ere, jende asko dago audio-liburua entzun eta gero liburua paperean irakurtzen duena. Gainera, hautatutako liburuek dagoeneko harrera beroa izan dute paperean argitaratu direnean.

IDAZLEAREN AHOTSEAN

Lo potolo liburuan agertzen den bere bertsoa grabatu zuen lehenik Uxue Alberdi idazleak, On Time ekoiztetxeko estudioan. Horren aitzakian *Jenisjoplin* ere berak graba zezala proposatu zioten. Iñaki Beraetxeren laguntza izan zuen lan horretan.

Alberdik dioenez, ez da gauza bera publiko batentzat irakurtzea edo bakarka entzungo dena grabatzea, eta ikasteko aukera izan da hau berarentzat: “Idazleak daude eroso sentitzen direnak idazten eta kito, beste batzuk irakurle taldeetan ere parte hartzen dutenak, adibidez, eta gehiago. Niri asko interesatzen zait hitza eta komunikazioa, ahoz ematearen geruza hori, lehen mailakoa dena, bai aurrez aurre eta baita grabaketa batean ere. Pila bat disfrutatu nuen grabatzen, noiz sartu arnasak ahots batean eta noiz ez... Hitzarekin batera ahotsak liluratzen nau eta aukera bikaina zen hori ere lantzeko. Asko erlaxatzen zuen, gainera, hiru orduz ia xuxurlaka aritzeak”. Nobela grabatzeko guztira, hiru orduko zortzi saio egin zituzten, zortzi goiz.

Audio-liburuei dagokienez, Alberdik dio hemen ez dagoela horretarako kultura eta ohitura handirik, baina hori sortu egiten dela, egin behar dela, dauden apurrak ere ez baitaude oso sozializatuta. “Betidanik gustatu izan zait testuak idazleen ahotsean entzutea, batez ere autoan, gaztetatik. Julio Cortazarren CD bikoitz bat eramaten dut musika beharrean. Paseoan noanean ere entzuten ditut”. Zentzu horretan, podcasten kulturak audio-liburuak eta antzekoak zabaltzen laguntzen duela dio. Hala ere, irakurtzea eta audio-liburuak entzutea bi esperientzia ez ordezkagarri direla iruditzen zaio, eta audio-liburuek balio dezaketela irakurtzeko zailtasunak dituztenek literaturaz gozatzeko, hizkuntza ikasteko...

Alberdiren aburuz, auzi honetan ere eginez ikasten da, baita zer ez den egin behar ere. Batetik, euskaldunok kontserbadurismorako joera dugula iruditzen zaio, ustea dela egitekotan dena egin behar dela perfektu. Bestetik, kontrakarrean estraliterarioak diren beste interes batzuk ere badaudela dio, eta oreka bilatu behar dela. "Interes desberdinen artean errezeloa sortzea normala da baina gatazka da bidea. Bi indar horiek daude eta eztabaida horietatik aterako da bidea".

On Time ekoiztetxeko Joxe Felipe Auzmendik dioenez, audio-liburuak ekoizteak prezio bera du hizkuntza edozein dela ere, arazoa da euskarazkoen merkatua oso txikia dela, eta horren irtenbidea dela instituzioetara jotzea. “Norbaitek zezena adarretatik hartu behar du: administrazioak, idazleek eta editoreek. Eta egiten hastekotan txukun egin behar da. Baina horretarako planteamendu bat egin behar da”.

Gaur egun erdaretan argitaratzen diren liburu gehienen audio-liburuak sistematikoki ekoizten dira, eta hori falta da. Horregatik, idazle eta editoreen artean hautaketa bat egiteko proposatzen du Auzmendik, Literatura Unibertsala sailarekin egin zen bezala. “Bihotz onez jokatuta ados egongo ginateke hautatutakoen %90ean gutxienez. Baina hemen pentsatzen eta hitz egiten urteak pasatzen ditugu eta bitartean euskarazko audio-libururik ez dago. EITBpodkastek egin duen ahalegina oso txukuna da. Jendeak agian ez du nahiko hor jarri, baina orduan non jarri? Alternatiba hoberik badago goazen hori egitera”. ●

www.bertsozale.eus
Sarrerak www.bertsosarrerak.eus atarian salgai

Nafarroako
Bertsolari Txapelketa 2021
Urriaren 2tik azaroaren 28ra
Izaba · Tafalla · Zangoza · Doneztebe · Altsasu
Berriozar · Leitza · Iruñea

Antolatzailea
Nafarroako bertsozale elkartea

Laguntzailea
ARGIA

“Irakasleak armairutik ateratzea inportantea da, eskola espazio seguru bilakatzeko bidean”

Usua Martinez eta Kepa Blázquez

LGBT jendearen aurkako erasoen gorakada ohartarazi duten honetan, eskolan gaiak duen presentzia jakin nahi izan dugu. Ikastetxe barruko eraso homofoboez, horri aurre egiteko estrategiez eta hezitzaileek jokatu dezaketen rolaz mintzatu gara Kepa Blázquez eta Usua Martinez irakasle homosexualekin. Blázquezek Frantsesa eta Martinezek Hizkuntza eta Literatura ematen dute Bigarren Hezkuntzan, eta badakite LGBTfobiari aurre egiteko espazio inportantea dela eskola, baina kontuan hartuz “aldi berean eskola bera dela txikitatik barneratzen dugun heteronormaren transmisore handietako bat”.

MIKEL GARCIA IDIAKEZ DANI BLANCO

Zenbateraino da “marikoia” ohiko iraina eskoletan, ikasleen artean? Zer zigortu nahi du irain horrek?

Kepa Blázquez: Eskola hein batean ere bada gizartearen isla eta beraz galdetu beharko genuke zenbat esaten den “marikoia” kalean, tabernan, gaztetxean... baina egia da eskolan ere erabiltzen dela irain hori. Ez du sexu praktika zigortzen, kaxetatik ateratzea baizik, zehazki mutil-kaxatik ateratzea, mutil ereduaren kaxatik. Dena den, eraso homofoboa ematen delarik, beti azpimarratzen dugu norbaitek erasoa jasan duela homosexuala delako, baina fokuak ez luke hori izan behar, baizik eta erasotzailea homofoboa dela: erasoaren iturburua ez da biktimaren homosexualitatea, erasotzailearen homofobia baizik. Aldi berean, beste norbait marikoi gisa seinalatzen duenari balio dio bere gizontasuna bermatzeko, kaxatik atera den hori seinalatuz bere burua kaxa barruan kokatzeko, arauaren barruan.

Usua Martinez: Nik ez dut ikusi ikasleak euren artean ari direnean “hura marikoia da” gisako solasaldirik; irain moduan aldiz, sarritan, adibidez mutilen batek bere gizontasunarekiko ahultasunen bat erakutsi badu. Espero ez nuena ere gertatu zait: klaseko lehenengo egunean 15 urteko gazteak euren burua aurkezten ari zirela, neska batek baino gehiagok adierazi zuen lesbiana edo bisexuala zela. Eta ez da kasualitatea, batetik neskak izatea hori adierazi zuten guztiak, eta bestetik gainerako ikasleekiko oso ahaldunduta zeuden neskak izatea. Askoz zailagoa ikusten dut mutil batek halako aurkezpen bat egitea, gay zarela esateak suposatzen duelako zure maskulinitatearen boteretik eskaileramaila asko jaistea.

Blázquez: Nik uste, feminismoaren borrokari esker bollera izateak ez dizula emakumetza kentzen besteen begiradaren aurrean. Aldiz, mutilok gure burua maritxu gisa aurkezten dugunean

"Erasoen iturburua ez da biktimaren homosexualitatea, erasotzailearen homofobia baizik", azpimarratu du Kepa Blázquezek.

zalantzan jartzen da gure gizontasuna. Emakume izateko hainbat modu dagoen bezala, ez dut uste gizon izateko halako aniztasuna dagoenik.

Esku hartzen al dute irakasleek halako irainak entzutean?

Blázquez: Lehengora bueltatuko naiz, esku hartzen al du familiak, auzoak... halakoak gertatzen direnean? Badirudielako hezkuntzaren ardura baino ez dela. Ikastetxeetan, normalean testuinguru ez-formaletan gertatzen dira halakoak, pasilloan-eta, ez ikasgela barruan, eta ez da hain erraza lanketa egitea. Biolentzia den heinean moztu egiten da, momentuan esku hartzen da, baina hortik harago epe luzeko estrategia botatzen dut faltan. Eta estrategia horrek denontzat izan beharko luke, sexu joera dena delakoa ere, ulertuta kaxen opresioa denok jasaten dugula, nahiz eta gu gehiago odolusten gaituen; "marikoia!" oihukatu duen horri planteatu behar zaio bere gizontasuna hersten ari dela. Homofobiaren kontrako mezu gehienen diskurtsoa da "utziezu nahi duten bezala maitatzen" eta gisakoak, baina diskurtsoa bideratu beharko litzateke norbere homofobia lantzera eta desaktibatzera, ulertuz norberarengan ere eragiten duela opresio horrek, gutxi gehiago.

Martinez: Momentuan esku hartzen duzu, bai, baina horrekin bakarrik ez goaz inora, diskurtsoa oso ikasia dugulako denok, baita ikasleek ere. Badakite marikoi deitzea ez dagoela ongi, eta segituan esango dizute txantxetan ari zirela edo aitzakiaren bat jarriko dute. Alegia, kontua ez da ikusaraztea ekintza hori ez dagoela ongi, jakin badakitelako, eta hala ere behin eta berriz errepikatzen dute biolentzia hori... Kepak zioen bidetik, bestelako estrategiak behar ditugu, hasteko ikastetxeak espazio seguru eta eroso bilakatuz, sexu identitate guztiak babestuko dituen espazioa, gaur egun ez delako hala, inondik inora. Norbaiti marikoi deitzeaz ari gara, baina heterosexual ez denarenganako biolentzia alde guztietatik dator eskolan, curriculumetik hasi eta irakasleok egiten ditugun iruzkinetaraino.

Blázquez: Estrategia premiari tiraka, nik beti izan dut harrikada bat: euskalgintzaren borrokari esker Irale formazioa lortu den moduan (irakasleentzako ikastaroak, euskara eta euskal kultura indartzeko), antzeko formazioa planteatuko nuke, hezkidetza oinarri, gai hauen kontzientzia hartzeko. Azken finean, ezer ez egitea da norma transmititzea eta egonkortzea, eta norma ez da naturala, propaganda eta zigor estrategiak ditu, eta ez dago horren kontzientzia nahikorik. Neska kuadrilla irtengo da luma duen mutilarekin batera patiora, eta hantxe joango zaio irakaslea "zeinen ongi akonpainatuta zauden" esatera mutikoari.

> "Gakoa da ikasleei oxigeno bolak jaurtitzea, eredu hegemonikoarekiko kontrakorrontean doazenak"
>
> **Kepa Blázquez**

Zenbateraino iruditzen zaizue lagungarria irakasle ez heterosexualek euren identitate sexuala esplizitatzea? Armairutik ateratzen al dira irakasleak, ala bizitza pribatuaren esparrurako uzten dute gehienek?

Martinez: Ez dakit irakasleak armairutik atera ohi diren, baina niretzat bada inportantea egitea, "kaixo, hemen gaude, bollerak gara, marikak, transexualak, ez-binarioak, irakasleak gara eta lasai egon" mezua zabaltzea, eskola identitate sexual guztientzat espazio seguru bilakatzeko bide horretan. Heterosexualen artean hedatuta dagoen diskurtsoa da "ze behar duzu hori esateko?", bada, hain juxtu, zuk ez daukazun beharra. Dena etiketatzeko beharrik ez dagoela esaten digute, baina ez dira konturatzen ezer esaten ez baduzu zuzenean duzun etiketa "heterosexuala" dela. "Ez du inporta zer zaren eta norekin oheratzen zaren, denok berdinak gara" ere badiote, eta ez da egia, heterosexual izateagatik besteok ez ditugun pribilegio batzuk dituztelako. Hori esanda, onartzen dut ikasleen aurrean "bollera naiz" esatea

kostatu egiten zaidala. Batzuetan esan dut eta bestetan ez, taldeak berak batzuetan gai horretaz hitz egitera eramaten zaituelako eta bestetan ez. Azken azaroaren 25ean adibidez, aztoratuta sartu ziren ikasleak, indarkeria matxistaz hitz egin nahi zuten, eta gizon zisheterosexualez gain dauden beste identitateez hitz egiten amaitu genuen.

Blázquez: Gure barne-borroka eta zalantzak ditugu, eta ahal duguna egiten dugu. Batzuetan indartsuago zaude eta bestetan zaurgarriago, bolada batean kontraesanak izan ditzakezu... baina noski ikusgaitasuna oso inportantea dela, ez bakarrik ikasleentzat, baita neuretzat ere, neure prozesuarentzat. Erreferente garelarik erreferentzialtasun hori ez badut erabiltzen nire marikitismoa mahaiaren gainean jartzeko, norma gailenduko da eta etiketa jartzen ez badut beste etiketa aktibatuko da, Usuak dioen moduan. "Zertarako esan behar duzu?", bada, esan gabe heteronormak egiten duelako bidea. Hain juxtu, bikotea izan dudan garaietan erosoago esan izan dut gay naizela, normara zenbat eta gehiago hurbildu orduan eta errazago irekitzen zaizulako atea. Orain ostadarraren poltsarekin hasi naiz eskolara joaten.

Irakaslea armairutik ateratzeak laguntzen al die ikasleei bestelako ereduen eraikuntzan, aurreiritziak apurtzen?

Blázquez: Norma hegemonikora oso atxikita dagoen LGBT irakaslea bada, ez du zertan; horren aldean, lagungarriagoa litzateke adibidez gonarekin klasera etortzen den gizon irakasle heterosexuala. Edo luma duen gizon irakaslea, ez baita ohikoa luma erakustea autoritate posizioan dauden gizonengan, baina gogoa ere behar da luma azaleratzeko, gizon-kaxatik ateratzea delako, barreak eta biolentzia jasotzea dakarrelako, eta prest egon behar duzu horretarako, errazagoa da luma ezkutatu eta kaxaratzea. Kontuak kontu, gakoa da ikasleei oxigeno bolak jaurtitzea, eredu hegemonikoarekiko kontrakorrontean doazenak, dela ostadarraren poltsarekin agertuz, sintaxia emateko "ni eta nire mutila oporretara joan gara" esaldia erabiliz edo ikasleak Paris Saint Germain futbol taldeak irabazi duela eta hari buruzko lanketa egiteko eskatzen duenean nik ezetz erantzunez, Eurovisioko frantsesezko abestiak jorratuko ditugula.

Martinez: Kepak sintaxia aipatzen duen moduan, klasean erabili ohi diren eredu, adibide, curriculum eta abarrek hain dute ikuspegi zisheterosexuala, bestelako norabidean doan erreferentzia oro dela ongi etorria, seguru nagoelako asko eta asko direla ematen den materiarekin identifikatuta sentitzen ez diren ikasleak. Lehen urratsa da irakasleok kontziente izatea zer dagoen ematen dugun curriculum horren atzean, eta gero, dugun denboraren eta aukeren arabera jokatuko dugu, irakasleongan ardura handiak jartzen direlako, baina muga handiak ere baditugu, hezkuntza sistemak berak ezarriak. Dugun beste lan bat da klaseko botere harremanak kudeatzea, espazio guztia jaten dutenei espazio pixka bat kentzea, espaziorik ez duten ikasleei hartuaraztea... Ez dira oreka errazak, ardura handia dugu, eta oxigeno bola horiek lagungarriak dira halako dinamiketan.

> "Heterosexual ez denarenganako biolentzia alde guztietatik dator eskolan, curriculumetik hasi eta irakasleok egiten ditugun iruzkinetaraino"
>
> **Usua Martinez**

Erreakzio txarrik jaso al duzue ikasleengandik, irakasleengandik, gurasoengandik? Zer esango zeniekete "gai horiek" ez direla ikasleekin hitz egitekoak pentsatzen dutenei?

Martinez: Ez dut inoiz jaso erreakzio txarrik...

Blázquez: Nik ere ez. Guraso batzuek pentsa dezaketela haurrei ez zaiela hitz egin behar identitate sexualez? Agian ez dira konturatu heterosexualitatearen iturritik etengabe ari direla edaten haur horiek eta guk nolabait hori orekatu baino ez dugula egiten.

Hartu al zaituzte ikasleren batek "konfidente" moduan?

Blázquez: Udalekuetan gertatu izan zait, baten batek bere identitatea azaltzeko behar hori agertzea, baina horretarako begiraleok asko jarri genuen guretik, egun osoan elkarrekin ginen espazio hori espazio seguru eta erosoa izan zedin; gauza handia da hori lortzea. Ikastetxean gertatuko balitzait eta ikasleak interbentzio beharra izango balu, orientazio departamentuarekin elkarlanean egingo nuke esku-hartzea.

Martinez: Armairutik ateratze prozesuan ikasle batek nigana joko balu, nik ez nuke orientazio sailera bideratuko, nigana jo badu delako nirekin nahi duela barnean duen hori partekatu eta ez nuelako eskolaren esku utziko pertsona horrekin egin beharreko esku-hartzea. Niri berez ez zait halakorik pasa, baina baditut lagun irakasle bollerak halako konfidentziak jaso dituztenak ikasleengandik, beraiekin armairutik atera diren ikasleak.

LGBT irakaslearen begiradak errazago harrapatzen al du identitate gaietan galduta egon daitekeen ikasle hori, laguntza eta aholkua behar duena?

Blázquez: Zure biografiarekin bat egiten duen ikaslearekin konexio handiagoa duzu, hori hala da. Nire haurtzaroa nire barnean dago eta pieza horiek ukitzen baditu, *ttak*, zerbait aktibatzen da. Baina ikasle talde bakoitzarekin ordu askorik ez baduzu astean, eta curriculuma eman behar baduzu, gauza handirik ere ezin duzu egin, lehen esandako oxigeno bola ahalik eta gehien jaurti eta behar dituenak har ditzala, ikasle bakoitzak bere armairuarekin duen prozesua errespetatuz, jakina. Halakoak irakasle bakoitzaren prestutasunera mugatzea ez da zilegi, LGTBfobia arazo estrukturala izanik.

Martinez: Kasu bakoitzak zirkunstantzia ezberdinak ditu. Inportantea da inplizituki ikasleei transmititzea laguntza behar badute hor zaudela. Finean, eskolan ordu asko pasatzen dituzte haur eta gazteek, harreman asko dituzte bertan, eta beraz ikastetxea espazio inportantea da LGBTfobiari aurre egiteko, baina aintzat hartu behar dugu aldi berean eskola bera dela txikitatik barneratzen dugun heteronormaren transmisore handietako bat. ●

“Garrantzitsua da ulertzea mugimendu iraultzaile perfekturik existitzen ez dela”

Liburu mamitsua da *Mujer, Vida, Libertad. Desde el corazón del movimiento de las mujeres libres de Kurdistan* (*Emakumeak, Bizitza, Askatasuna. Kurdistango emakume askeen mugimenduaren bihotzetik*, Descontrol, 2020). Kurdistango askapen mugimenduaren baitako emakumeen mugimenduaren gaur arteko ibilbidea ez ezik, bidean teorizatua ere azaltzen zaio irakurleari, baita teoria horiek praktikara eramateko prozesuak eta horietatik ateratako irakaspen zein ondorioak ere. Liburua Andrea Wolf Institutuak egindako lan kolektiboaren emaitza da, eta beronen eraketa prozesuaz arduratu den lantaldeko kide da Arin. Kurdistango herriarentzat –eta Ekialde Hurbilarentzat oro har– bizitza askearen alde borrokan dabilen mugimenduaren planteamenduak ezagutzera emateaz harago, iruditzen zaio liburuan jasotzen dena hausnarketa zein eztabaida interesgarrietarako abiapuntu eta ekarpen iturri izan daitekeela handik kanpo ere. Lana aurkezteko Euskal Herrira egindako bisitan tartetxoa lapurtu genion, kafe baten bueltan beronetaz jarduteko.


Arin Bilboko Zirika Gunean, liburua aurkezten.

AMAIA LEKUNBERRI ANSOLA

Madrilgo mugimendu libertarioaren parte da Arin, eta ulertzera eman digunaren arabera, afinitate politikoari dagokio Kurdistango borrokarekin eratutako lotura. Dioenez, 2014an Kobane hirian Estatu Islamikoaren aurka erresistentzia burutzen ari zela ezagutu zuen “sakontasun handiagoz” Kurdistango askapen mugimendua, eta “behin hiria askatu zutenean, aukera izan nuen hara bidaiatzeko. Ohartu nintzen handik heltzen zitzaigun propaganda guztia egiazkoa zela”. Rojavan ez ezik [Siriako Kurdistan] Bakur-en ere egon zen [Turkiako Kurdistan], eta behin etxera bueltan, Rojava-Azadi Madrid proiektua sortu zuen lagunekin, hangoen berri zabaltzeko. 2017an berriz itzuli zen Rojavara; SDF Siriako Indar Demokratikoek Raqqa Daeshen eskuetatik askatu zutenean han zen, eta kazetari izanik erreportaje batean kontatu zituen gertakari historikoaren nondik norakoak. Hiru urte beranduago arte ez zuen itzulerako txartelik hartu, eta tarte horretan, besteren artean, Andrea Wolf Instituan jardun zuen. “Bertan egin ziguten liburua sortzeko proposamena kide batzuri, Kurdistango emakume askeen mugimenduaren historia, filosofia zein ideologia gazteleraz azaltzeko xedez”.

JINEOLOGI, JENDARTE ASKERAKO ZIENTZIA

2019an sortu zen Andrea Wolf Institutua, eta izen hori darama Kurdistanen askapenaren alde hildako lehen emakume alemaniarraren omenez. Rojavako Jineologi akademian ditu sustraiak, eta egoitza fisikoa Rojavan bertan badu ere, mugaz gaindiko kolaboratzaile sarea dauka. “Bertan, emakumeek eta emakume gisa sozializatutako pertsonek, Jineologiren garapena bultzatzen dute”, irakur daiteke liburuan. Kapitulu oso bat eskaini diote Jineologiri, “bizitzaren

eta jendartearen zerbitzura dagoen zientzia" gisa definitzen duten horretara hurbilpen bezala. Zertan datzan hobetoxeago ulertzeko zertzelada gisa balio dezakete liburuan jasotzen diren lerrook: "Jineologik tresnak jartzen dizkie eskura emakumeei, mundua beren ikuspuntutik eta egiazko nortasunetik aztertu eta ulertzeko, eta jendartea eraldaketa erradikalerantz eramateko (...) Beharrezkoa dugu bizitzako eremu orotan berrikusketa eta analisia egitea boterearen eta zapalkuntzaren mentalitatetik urrun eta emakumearen ikuspuntutik, emakume askearenetik, bere burua aurkitu eta beregain eta bere baitan inposatu diren kategoria eta gezurrak errefusatzen dituenarenetik". Jineologin oinarritutako web atariko goiburuan diotenez, sinetsirik baitaude "emakumeen bueltan garatutako zientzia izango dela soziologia egoki baterantz lehen pausoa".

Zientzia propioa garatzeko beharrizanak lotura egiten du historiaren irakurketa propioa egin izanarekin. Iraultzaile kurduen ikuspuntua jasoz liburuan argudiatzen denez, "inposaketa patriarkal, kapitalista eta estatalak arretaz hautatu ditu zapalkuntza sistema goratzen duten iraganeko pasarteak", eta historia nola, praktika zientifiko modernoa ere "sexismoaren, kapitalismoaren eta kolonialismoaren zerbitzura" egotera pasa da. Ofizialtzat jo den historiari erreferentzia eginez, hala dio Arinek: "Badirudi historia lehen idatziekin hasten dela, baina jendartearen historiaren %2a baizik ez du barnebiltzen ikuspegi horrek eta aurretikoa 'antropologia' edo 'arkeologia' kontsideratzen da. Nola liteke garenaren %98a historiaren analisitik kanpo uztea?". Ikuspegi murriztailea deritzo, kanpoan uzten baitu luzaz klanetan

antolatutako jendartearen historia, zeinak –batez ere– emakumeak zituen ardatz, komunitatearen euskarri ziren heinetik. Bat egiten du liburuan biltzen den tesiarekin: "Historia ofizialak ikuspegi androzentrista darabil, eta ahanzturan uzten ditu emakumeak protagonista papera izan duen momentu eta garai historikoak". Horregatik hain justu, nagusitutako historiaren kontakizunaren itzaletan behatu dute kurduek, Abdullah Öcalanen premisari jarraiki: "Galdu genuen tokian, hortxe bilatu behar dugu egia".

Berrikusketa historikoak eraman ditu ondorioztatzera Neolitoko iraultzan dagoela jendarte askerako hainbat giltzarri. Jendarte Naturala deitu diote aro hari, ulerturik gizakiaren "naturaltasuna" emakumeen eta berauen baloreen bueltan komunalki antolatutako eta izaki bizidunen zein ingurugiroaren arteko hierarkiarik gabeko jendartean datzala. Emakumeak mende hartzeko gizonen lehen saiakerak hasi eta dominazio sistemaren lehen zantzuek agerpena egin aurretiko jendarte horretan bizimolde askerako hainbat gako daudela defendatzen dute, nortasun iraultzailearen eredua kasu. Garaiotatik edaten duen Ama-Jainkosa figurak, jainkotasun geruzaren azpian, zapalkuntzarik gabeko jendarte haren figura zentrala zen emakumearen izaera gordetzen duela deritzote, "nortasun iraultzailearen abangoardia irudikatzen duena". Nortasun horren barneratzean ikusten dute jendarte askerantz bidea, eta hargatik defendatzen dute biderik baldin bada emakumeak abangoardiatzat izango dituela eta berauen askapenetik pasako dela. Jineologi, finean, iraultza horretara bidea egiteko behar den emakume ikuspegidun soziologia litzateke, mugimenduko kide Heval Zozan Simak liburuan azaltzen duenez.

Liburuaren sortze-prozesuak berak ere Kurdistango Emakumeen Mugimenduaren teoriaren eta praktikaren arteko uztarketan sakondu du. Jineologi oinarri hartuta gauzatutako prozesuaren emaitza da, eta zientzia moderno positibistari egiten dizkion kritikak kontuan hartu dituzte momentu oro. Egitura bera da horren adibide, Arinen aburuz: "Elkarrizketak dira liburuaren bizkarrezurra, ez baikenuen estropozu egin nahi zientzia positibistaren akatsekin. Munduko beste txoko bateko objektua ikertu eta beronen gainean analisia egiten duen subjektu txuri gisa aritzea ekidin nahi izan dugu". Protagonismoa elkarrizketei emanik, Kurdistango emakumeen mugimenduko kideen pentsamendu eta esperientzien transmisore gisa kokatu gura izan dira. Formatu horrek, gainera, liburuari bizitasuna eta gertutasuna ematen diola iruditzen zaio Arini: "Azken finean, emakumeak eurek baitira beren bizipenez, zailtasunez, topo egindako trabez eta horiei aurkitutako aterabideez mintzo direnak, eta iraultzaile bilakatzera zerk bultzatu dituen azaltzen dutenak".

> "Espazio ez-mixtoetara joan arren gero etxera itzultzen banaiz, eta onartzen badut gizonezko kideak ni zanpatzea, bereizketa handirik ez naiz ari egiten"

BALIAGARRI IZAN DAITEZKEEN EKARPENAK

Urteetako hausnarketa, ikasketa eta eztabaiden emaitza diren historiaren eta zientziaren irakurketa alternatiboak luzatzeaz gain, liburuak bestelako ekarpenik ere egiten duela deritzo elkarrizketatuak. Kurdistango iraultzaren idealizazioari bidea ixtea, kasu: "Garrantzitsua da ulertzea mugimendu iraultzaile perfekturik existitzen ez dela". Horrek idealizatutako prozesu iraultzaileak bere horretan kopiatzea ekiditen laguntzen duelakoan dago.

Alabaina, Kurdistango lurraldean gauzatzen ari diren iraultza bere horretan esportagarria ez bada ere, liburuan jasotzen diren hainbat kontu bai iruditzen zaizkio balizko eztabaida interesgarrien abiapuntu. Emakumeen Askapenaren Ideologiaz hausnartzeari, adibidez, aproposa deritzo. Bost printzipiotan oinarritzen dela azaldu digu labur-labur: *Welatparezi* deiturikoa da lehena, eta erreferentzia egiten dio lurraldearen defentsari, ulerturik emakumea dela lurrarekin eta komunitatearekin jendarteak duen lotura; Pentsamendu eta Borondate Askea da bigarrena, aske izan gura duen emakumeak bizian zehar ihardetsi beharrekoa; [Emakumeak] Antolatuta Egotea printzipioak segitzen die zerrendan; Borroka da laugarren puntua, eta bizia eta borroka uztartu eta dena bat bilakatu beharra azpimarratzen du; eta Etika eta Estetikak ixten du zerrenda. Interesgarri deritzo azken printzipio horri buruz hausnartzeari bereziki hemen, "sistemak etika eta estetika zeharo manipulaturik dauzkan Mendebaldeko jendartean". Hala dio: "Teorian, hainbat balore etiko irakasten dizkigute: elkarbanatzea, elkartasuna izatea... Baina gero, praktikan, sistemak bultzatzen gaitu lehiakorrak eta indibidualistak izatera, ondokoa zapaltzera". Estetikarekin antzera gertatzen dela dio: "Gauza ederrak zein diren esaten digute, baina batez ere emakumeon kasuan, gauza horiek min ematen digute, gaixotzen gaituzte... Etika eta estetikari dagokionez, sistema kapitalistak oso mingarriak diren kontraesan inplizituak ditu, eta horregatik gure etika eta estetika propioak bilatu behar ditugu". Uste orokortuaren kontrara, estetikari ez deritzo hutsalkeria. Izan ere, liburuan jasotzen denez: "Etika eta estetika sistemaren aurkako gerran gidatu behar gaituzten printzipioak dira, mundu eder bat sortzea xede. Gorrotoa eta amorrua besterik ez badugu gidatzat, oso erraza da norberaren etsai propioa bilakatzea, eta edertasuna ordez itsustasuna sortzea".

Liburuak egiten dituen ekarpenak aletzen jarraituz, soilik emakumeek osatutako egitura autonomoak zeinen beharrezko diren bistako egiten duela azpimarratu du Arinek. Kurduen askapen mugimenduko egitura orok dauka baliokide ez-mixtoa, eta liburuak jasotzen dituen emakumeen testigantzek ageriko egiten dute zeinen baliagarri diren emakumeen ahalduntzerako, emakumeei eragiten dieten problematikak identifikatzeko, eta horiek segurtasun giroan jorratzeko, besteak beste. Arini giltzarri iruditzen zaizkio, emakumeei ahalbidetzen baitie "gogoeta egin eta ideia argiekin itzultzea gizonekin elkarbanatzen dituzten espazioetara, jakinaz zein diren emakumeen beharrizanak eta zein jendartearenak". Hala, espazio mixtoetako lana askoz errazago burutzen delakoan dago. "Beren kabuz erabakiak hartzeko emakumeen egitura sendoak izanez gero, denboraren poderioz egitura

mixtoak ez dira ez dagozkien erabakietan katramilatzen. Kurdistanen hori argi ikusten da: adibidez, Rojavako justizia sistemak badu bere frakzio ez-mixtoa, eta horrek jorratuko ditu genero indarkeria kasuak. Gizon epaile bati ez zaio burutik pasako kasua epaitzea".

Espazio ez-mixtoak behin ahotan hartuta, ez du nahi izan Bereizketaren Teoria aipatu gabe utzi, ekarpen interesgarri iritzirik horri ere. Gizonekiko bereizketa espazialaz harago, urruntze mentala ere beharrezkoa dela dio teoriak. "Zeren espazio ez-mixtoetara joan arren gero etxera itzultzen banaiz, eta onartzen badut gizonezko kideak ni zanpatzea, bereizketa handirik ez naiz ari egiten", dio Arinek.

DESPATRIARKALIZAZIO LANAREN EMAITZAK

Liburuan mintzo diren emakumeen testigantzen bidez, irakurlea urteetako despatriarkalizazio prozesuaren testigu da. Prozesu horren gaur arteko emaitzez galdetzerakoan, bere ikuspuntua eman digu Arinek: "Ez da bukatutako lana, baina eman dira aurrerapausoak, eta hori emakumeen egitura autonomo indartsuei esker izan da". Bide horretan aurrera egin eta sakontzeko, iruditzen zaio gizonek ere, egitura mixtoetan parte hartzeaz gain, beren pribilegioak berriskustea ahalbidetuko liekeen egitura ez-mixtoetan egon beharko luketela, bai behintzat "maskulinitate berriak eratzeko egiazko desira badago".

Zenbait mugarri jarri direla iruditzen zaio, dena den. Liburuak biltzen ditu horietako asko eta asko, baina adibide bat jartzearren, jendartean martxan dagoen eta apurka-apurka bidea egiten ari den familia demokratizatzeko prozesuaz mintzatu da: "Proposamena ez da familia suntsitzea –nire begietara Mendebaldean egiten ari den bezala–, baizik eta birformulatzea, sostengu eremu bezala duen garrantzia kontuan hartuta. Alegia: sistema eta estatua familia egituretan oinarritzen dira; hori kontuan izanik, nolako etorkizuneko jendartea irudikatzen dugu eta jendarte horretan nolakoak behar lukete harremanek? Zein bestelako familia eredu eratu genezake? Jinwar –emakumeek emakumeentzat sortutako herrixka– herrikoa bezalako familia sortu genezake, zeinetan esan daitekeen haurrak bertako emakume guztienak direla, eta kide guztiak elkarbizitzan bizi diren?".

Familiaren eraldaketa prozesuari luze joko duen egitekoa deritzo, baina norbanakoen arteko harremanei dagokionez, aldaketa aurreratuago dagoela esan daiteke. Izan ere, dioenez, "zerbait baldin bada indartsua Kurdistango askapen mugimenduan, hori *Hevalti* da"; adiskidetasuna esan nahi du kurdueraz, eta askapen mugimenduaren filosofiaren oinarria da. Adiskidetasun bat, hori bai, beren printzipio ideologikoaren gainean eratua –eta ondorioz, besteak beste, generoaren araberako botere-harremanak errefusatzen dituena–. Bestelako jendarte eredu bat sortzera bidean, Arinek gakoa deritzo adiskidetasunaren zentraltasunari, arrazoi argi batengatik: "Hautsiezina den adiskidantza eratzea da mugimendu iraultzaileak funtzionatzeko modu bakarra; 'zatitu eta garaituko duzu' esaldiak dioena egia baita".

Kafea aspaldi hondarretara murriztua zela eten dugu solasaldia, nahiz eta liburu mardulak hizketaldi luzeagorako eman. Grabagailua itzali aurretik Arinek aurreratutakoak, baina, etorkizunean hizketaldi gehiagorako abagunea izanen dugula iradoki digu: materialaren zati bat argitara eman gabe utzi dute, eta bidean da bigarren liburukin bat, "Rojavako emakumeen iraultzan oinarritua". "Dena espero bezala badoa, datorren urterako argitaratzea espero dugu", gehitu du. Ziur aski, interesa duenari itxaronaldia goxo egingo zaio, lehen liburuarekin irakurleen eskura jarritako materialak ematen baitu luzaz hausnartzeko parada. ●

‘Nora’ filma euskaraz ikusteko bidaia

Lara Izagirreren bigarren filma *(Nora)* gaztelaniara bikoiztuta eskaini dute Euskal Herriko hainbat zine aretotan, zenbait talde euskaltzalek salatu dutenez. Tartean izan dira Bilboko Berbalagun Feministako kideak. Taldeak alde ona aurkitu dio gertaerari: hizkuntza zapalkuntzaren aurrean aktibatu dira.

JUNE FERNÁNDEZ

IRAILAREN 1A

Lara Izagirre zine zuzendariak idatzi dit, *Nora* bere bigarren pelikularen estreinaldiaren bueltan elkarrizketa proposatzeko. “Zuekin [*Pikara Magazine*-rekin] hitz egin nahi nuen filma eta euskarazko film bat emakume batek egiteak dakarrenaz”, esan dit. Bai, noski. Lehenengo pausoa, pelikula ikustea.

IRAILAREN 3A

Berbalagun feministako kideei proposatu diet zinemara elkarrekin joatea. Orain arte, Bilboko talde honen jarduera bakarra astelehenetan Bira kultur aretoan batzea izan da. Hortaz, ikasturte berria hasteko plan ederra iruditu zaie. Gainera, gehienok ez dugu zinema areto bat zapaldu pandemia hasi zenetik. Ikusi dugu Bilbon bi zinema aretoetan eskaintzen dutela *Nora*: Golem Alhondiga eta Multicines. Bigarrenera joatea adostu dugu. Areto txiki, historiko eta alternatibo samarra da, pelikulak jatorrizko bertsioan topatzeko aukera nagusia.

IRAILAREN 9A

Heldu da eguna eta asko dugu ospatzeko: “Uste dut C1eko azterketa gainditu dudala”, idatzi digu Veronika gure kideak. Aparkaleku bila nabilen bitartean, Margak filmaren kartelaren argazki bat bidali digu: gainean, hitz larrietan, *castellano* hitza ikusteak asaldatu gaitu. Bat-batean gogoratu dut Lara Izagirrek aipatu zidala gaztelaniara bikoiztutako bertsio bat ekoiztu dutela Espainian zabaltzeko. Ez zait burutik pasa Bilboko zinema areto txiki, historiko eta alternatiboak bertsio hori aukeratuko zuenik. Margak lasaitu gaitu, txarteldegiko langileak argitu baitio pelikula eleanitza dela, euskarazko zatiak egongo direla, baita ere gaztelaniazkoak, ingelesezkoak eta frantsesezkoak. Ainhoak hipotesi bat bota du: azpitituluak izango dira gaztelaniaz.

‘Nora’ filmaren iragarkia zinema aretoetarako.

Pelikula hasi da. Ane Pikaza (Nora) eta Héctor Alterio (bere aitite) ari dira solasean gaztelaniaz, normala denez, aitite Argentinakoa baita. Ondoren, Nora taberna batera doa eta Kepa Errastik antzeztutako tabernariarekin ere gaztelaniaz hitz egiten jarraitzen du. Hori bai arraroa. Ezpainek eta soinuek ez dute bat egiten. Arranopola! Bikoiztutako bertsioa ikusten ari gara.

Nire bertuteen artean ez dago frustrazioari aurre egiteko gaitasuna. Ainhoari esan diot ez nagoela prest Euskal Herrian euskaraz ekoiztutako pelikula bat gaztelaniara bikoiztuta ikusteko, non eta Bilboko zinema areto batean. Lau lagun atera gara aretotik eta pote bat hartzera joan gara; beste bi barruan geratu dira, tartean Marga. Irtetzerakoan esan digu hainbeste gustatu zaiola pelikula, ezen berriro ikusi nahi duela: euskaraz, noski. Aitzitik, beti Euskaraldiko musukoa daraman gure laguna txarteldegiko langileari kexatu zitzaion.

Etxera heldu garenean, Margak argazki bat bidali du whatsapp taldera, erakusteko *Berria*-ren ikuskizunen sailean, Multicines aretoaren zerrendan, *Nora* letra lodiz idatzia agertzen dela, bestelako oharrik gabe. Gerora nik hainbat egunkaritan joera berbera ikusi dut: jatorrizko pelikula ematen duten aretoetan “*Nora* (VOSE / JBA)” ipini dute; bikoiztutako bertsioa denean, ordea,

parentesirik ez. "Normala den hizkuntza arraro bihurtu dute", erantzun du Encarnik. Ainhoak nabarmendu du gaztelaniazko pelikulen trataera oso bestelakoa dela: "*A todo tren*. *Destino Asturias* [zerrendako beste pelikula bat] VOSE ere izango da? Argi dago hizkuntzaren nagusitasuna Euskal Herrian".

IRAILAREN 10A

Margak change.org-ko lotura bidali digu: "*Nora* filma euskaraz ikusi nahi dugu Getxo Zinemetan". Gure kideak gaineratu du: "Egun on! Ikusten duzuenez, 'auzia' ez da gurea izan bakarrik. Kontua mugitzen hasi naiz eta indarrak batuko ditugu, denon artean zerbait egiteko". Egoera ez da berria, Urtzi Urkizu *Berria*-ko kazetariak Twitterren kritikatu du *Handia* eta *Errementari* filmak gaztelaniara bikoiztu izana.

Naia "ekintza zuzenaren alde" agertu da: "Plante orokor bat pelikula hastean edo…". Galdakaon ere gaztelaniaz eskaini dute eta bertoko lagun euskaltzale batek euskara sailarekin hitz egiteko asmoa adierazi dio.

Margak beste lotura bat bidali digu iluntzean: "*Nora* euskal filma gaztelaniaz ikusi behar izan dutela salatu du euskaltzale talde batek Bilbon". "Talde hori geu gara", argitu du, harro. Uriola.eus-eko albistea ARGIAk ere zabaldu du. Urrats gehiago eman ditu hurrengo egunetan: Elebide Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Zerbitzura kexa idatzi du eta Berbaizu Deustualdeko elkartearekin harremanetan dago Behatokira ere bidaltzeko. María Luisak argudio gehiago partekatu ditu gurekin: zinemek euskal zinema babestu behar luketela, eta bere formatoa errespetatu, hizkuntzen aniztasunaren mesederako, are gehiago aspaldian apustu horri heldu dioten zinema aretoen kasuan.

IRAILAREN 12A

Euskarriak euskarazko zinemari Eider Goenaga Lizasok *Berria*-n argitaratu duen zutabea bidali digu Encarnik. Esaldi bat azpimarratu du: "[Aurrera egiteko, dirulaguntzez gain eta industriaren inplikazioaz gain] Behar dira ikusleak". Filmak euskarri orotan eskaintzea proposatzen du egileak: zinema, telebista, Youtube, ordainpeko plataformak…

IRAILAREN 13A

Ahots gehiagok sendotu dute eztabaida. *Deia*-n, *Jatorrizko bertsioa* zutabean, Ane Araluzeak ospatu du *Nora* filmaren Bilboko aurkezpenera bertaratutako kazetari guztiak euskaldunak izanik, euskara hutsean egin zela. Ondoren, sinadura bilketaren berri eman du eta zinemen erabaki komertzialaren bi irakurkerta egin ditu: "Batetik, ezer gutxi balio du euskarazko zinemaren ekoizpena diru publikoz laguntzea enpresa pribatuek babes honi muzin egiten baldin badiote lanak jatorrizko hizkuntzan ikusteko aukera ukatuz. Eta, bestetik, ikus-entzunezkoak jatorrizko bertsioan ikusteko erreparoak ez dio mesederik egiten oraindik beharrezkoa dugun elebitasunaren sustapenari".

Bea nire lagun erdalduna etorri zait burura. Bere haurren eskolako gurasoen Whatsapp taldean gaztelaniaz egiten da ia beti. Bi emakume euskaraz labur mintzatu dira, eta beste ama batek gaztelaniaz egiteko eskatu die, "euskara ez dakitenekiko enpatia eta errespetuagatik". Erdalduna bada ere, Beak argi identifikatu du ateraldi horren indarkeria. Zera erantzun du: "Nik euskaraz egiten ez dudan arren, nire kritika kontrakoa da: ezinezkoa dela euskara ikastea jendeak ez badu euskaraz egiten. Euskaraz egin dezatela, eta ni konponduko naiz". Egun horretan erabaki du ia 38 urte dituen nire lagunak euskaltegian izena ematea eta itzultzaile neuronalaren laguntzarekin, whatsapp taldeetan euskaraz aritzea.

Margak mezu bat berbidali digu: "Ostirala 10, Getxoko autozinean filma euskaraz proiektatu zuten eta pelikula hasi aurretik Izarok kontzertua eskaini zuen!". A ze poza!

IRAILAREN 14A

Zinemara itzuli gara, Golem Alhondigara, Lara Izagirreri eskertuta, gonbidapenak lortu dizkigu eta. Filmaren xarmaz gozatu dugu: istorioaz, paisaiez, musikaz eta euskal aktoreen euskaraz. Nolanahi ere, galdera asko geratu zaizkigu, bikoizketaren aferari lotutakoak. Zer gatazka, presio edo desiok baldintzatzen dute bikoizketak egiteko erabakia? Zergatik bikoiztu dira euskal pelikula batzuk eta beste batzuk ez? Egilea eta lan taldeko buruak emakumeak izateak nolabait baldintzatzen al du negoziazio horietan? Zer edo zer egin dezakete (edo eskatu dakieke) joera hori aldatzeko euskal zinema babesten duten erakunde publikoei? A ze zortea nirea, kazetari izateak zuzendariari galdera horiek egiteko parada emango dit eta.

Feel-road movie sentimentala bezala definitu du kritikak *Nora* filma. Gu, ordea, euskaraz ikusteko, *road movie* aktibistan murgildu behar izan gara, zeinak hizkuntza zapalkuntzaz kontzienteago egin gaituen. Hori da historia honen alde ona: euskararen normalizazioaren aldeko gure bidaian, elkarrekin urrats berriak eman ditugu. ●

TRADEBI TRANSLATION
tradebi@tradebi.com

LUAarkitektoak
hirigintza
hirigintza aholkularitza
udal planak
urbanizazioak
peritazioak
balorazioak
etxebizitza proiektuak
birgaitzeak
barne diseinua...
Rio Arga Kalea 28, 31014 Iruña
Tel 948 13 26 97
lua@ luark.com

IÑAKIBEREZIARTUA
ENBALAJEAK
BILTEGIRATZEA ETA LOGISTIKA
ZERRA ETA ERAIKUNTZA
25 urte baino gehiago paketatze industrialaren sektorean
Jauregi auzoa, 75
Hernani (Gipuzkoa)
943 552 828
www.inakibereziartua.com
mjm@inakibereziartua.com

LIZENTZIA LIBREAK

Euskal hedabideen etxea eraikitzeko tresna

Iskanbila sortu da Twitterren joan den astean, ARGIAk berrerabili egin duelako *Aiurri* hedabideak argitaratutako elkarrizketa bat, Creative Commons Aitortu – Berdin partekatu lizentzia baliatuz. Sare sozialak ez dira ingurune onena mota honetako gaiei buruz eztabaidatzeko eta horregatik argitaratu nahi du auzi horri buruzko irakurketa hau ARGIAko lantaldeak, sareen logika polarizatzailetik harago, jarrera eraikitzaileak nagusitu daitezen.

ARGIA

Lehenik eta behin, argi utzi nahi dugu *Aiurri*-n elkarrizketa argitaratu duen kazetariaren kexa ikusi ondoren, eduki hori gure webgunetik eta sare sozialetatik ezabatu genuela, begi-bistakoa baitzen ez zuela ikusi nahi jatorriz argitaratu den hedabidea ez den beste batean. Horrekin batera, ordea, adierazi nahi dugu ARGIAk zorrotz bete zituela bi hedabideek euren edukiak publikatzeko erabiltzen dituzten lizentzia librearen terminoak.

Sareetan lan taldeko kide batzuk hori azaltzen saiatu direnean, ordea, gaiak beste norabide bat hartu du, zenbaitek etika faltaz edo lapurretaz hitz egin du. Baita sareetatik kanpo ere: Iban Arantzabal Goiena Komunikazio Taldeko zuzendari nagusiak eta *Aiurri* kide den Tokikom enpresako zuzendaritzako kideak, bere blogean "CC: Iritzi bat, eta ez legeaz" testua argitaratu du.

ZER LIZENTZIA ERABILI: HEDABIDE BAKOITZAREN ERABAKIA

Kezkaz ikusten dugu Creative Commons lizentziek euskarazko hedabideetan izan dezaketen bilakaera eta horrek zer nolako ondorioak izan ditzakeen euskarazko hedabideen esparruaren garapenean. Izan ere, kasu hipotetiko batzuk aipatu ondoren, lizentzia libreen erabileran "torlojua larregi ez estutzea" defendatu du Arantzabalek.

Kontua da, hasteko, eztabaida honetan aipatzen den "legea" hedabide bakoitzak bere buruari jarri diola. Inork ez du inolako komunikabiderik derrigortu CC BY-SA lizentzia erabiltzera eta proiektu komunikatibo bakoitzak baloratu behar du ea lizentzia mota horrek bere jarduteko moduarekin bat egiten duen –kasu batzuetan, CC BY-SA lizentziara aldatzeko arrazoia Jaurlaritzaren dirulaguntza eskaeretan puntu batzuk gehiago lortzea zen, baina gaur egun ez da horrelako puntuaketarik indarrean–. Alegia, medio bakoitzak erabaki behar du bere edukiak besteek ere berrerabili eta zabal ditzaketen, berak besteenak berrerabiltzeko aukeraren truke –beti ere egiletza eta iturria aitortuz–.

Baina torlojua ez estutzeaz hitz egiten denean, badirudi beste zerbait eskatzen dela: mundu osoan erabiltzen den lizentzia bat, edukien zabalpenaren baldintzak argi eta garbi zedarritzen dituena, euskarazko hedabideen kasuan ia erabilera praktikorik gabe utzi arte urardotzea.

HAUSNARKETAREN ONDORIO

Lizentzia librea aukeratzean, filosofia aldaketa sakona dago atzean, eta hedabideon kasuan eragin zuzenak ditu. Esaterako, hedabideak eta kazetariak egileak dira, baina jabetza komunitatearen esku uzten da, edukiaren zabalpenaren mesedetan. Horrek, adibidez, talka egiten du lehiarekin. Norberak bere webgunean klik gehiago lortzea baino, edukiaren presentzia biderkatzea bilatzen du, lana ahalik eta pertsona gehienengana irits dadin. Areago, lizentzia libreek komunitateari, irakurleei dei egiten diete edukia parteka dezaten. Hizkuntza gutxitu eta zapalduen kasuan, hedabideotan ditugun baliabide urriak elkarrekin uztartu, komunitatea trinkotu, sendotu, aberastu eta ikusgarriago egiteko tresna paregabea dira lizentzia libreak.

DANI BLANCO

Lizentzia bat ala beste aukeratzea ikuspegi eta lan molde aldaketa sakona da. ARGIAn prozesu oso bat garatu genuen lankide guztien artean, baita kolaboratzaileekin ere, lizentzia libreen aldeko hautua hartu aitzin. 2012an aukeratu genuen CC BY-SA lizentzia eta ordutik etengabe landu dugu gaia. Adibidez, egin dugun azken lanketa CC BY-SA ez duten euskal hedabideekin hitz egitea izan da, jakiteko ea haien edukiak partekatzea nahi duten: bakarra izan ezik, komunikabide guztiak gustura agertu dira ARGIAk haien edukiak zabaltzearekin. Euskarazko hedabideak biltzen dituen Hekimeneko bilera batzuetan ere landu izan da espresuki gaia, ARGIAk deituta. Baina, tamalez, agerikoa da hedabide eta kazetarion artean gai honetan oraindik dagoen ezezagutza, eta gaiak korapilatuta jarraitzen duela dirudi.

Azaroan bederatzi urte izango dira ARGIAn gure edukiei Copyright kendu eta lizentzia libreekin zabaltzen ditugula. Urte hauetan, besteren artean, ARGIAren ehunka artikulu zabaldu dituzte Euskal Herriko eta nazioarteko hedabide batzuek –hauetako bakoitza bere URL propioarekin, nola partekatu bestela webgune batean?–. Guretzat zabalkunde bakoitza poz iturri da. Astekariaren lehen orrialdean, lizentzien oharrean diogun bezala, edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugulako.

EUSKAL HEDABIDEEN ETXEA

ARGIAn sinetsita gaude lizentzia libreek praktikan jartzean ekartzen dizkigutela onurak denoi, euskaraz lan egiten duten hedabideen sektore osoari. Hori defendatzeko arrazoiak Mikel Irizar Tokikomeko presidente ohiak formulatu zituen ongien, "Euskal hedabideen etxea" kontzeptua plazaratu zuenean: bi solairuko etxe bat, euskal hedabide guztiak biltzen dituena, oinarrian tokikoak dituena, nazionalekin elkarlanean; eta bi solairuen artean igogailuak, etengabe edukiak garraiatzen.

Tokiko hedabide gehienek eta herri ekimeneko medio nazionalek gure edukiak CC BY-SA lizentziarekin zabaltzea erabaki genuenean, etxe amankomun hori altxatzeko urrats garrantzitsua eginda zegoela ulertu zuen ARGIAk: hedabide bakoitzak interesgarri jotzen duen edukia zabaltzeko aukera izango zuen, azkar eta eraginkor. Edukien eragina biderkatuta guztiok irabaziko genuke, eta batez ere irakurleek. Onura kolektiboa da. Praktikan ordea, euskal hedabideen etxeko igogailu hori, lizentzia librea, ez da ia erabiltzen. Copyrightak eta lehiak, zoritxarrez, indarrean jarraitzen dute.

Hori zergatik gertatzen den? Hedabide bakoitzak izango ditu bere erantzunak eta akaso onuragarria litzateke sektorean gehiago hitz egitea. Nolanahi ere, ARGIA egiten duen lantaldeak etxe amankomun horren alde lanean jarraituko du, lizentzia libreetan sakonduz, gero eta eduki gehiago komunitatearen esku uzten. Baita igogailua denentzat erabilgarri dagoela gogorarazten ere: gure edukiak interesgarri aurkituz gero, beste edozein euskal hedabidek berrerabiltzea nahi genuke. ●



Ziryab, IX. mendeko 'influencerra'

NAGORE IRAZUSTABARRENA URANGA

Mosul, 789. Abu Al-Hasan Ali ibn Nafi jaio zen abbastar kaliferriko hirian. *Ziryab* (zozo) izenez egin zen ezagun, bere azal ilunagatik eta, batez ere, ahots ederragatik, Ibn Hayyan (987-1075) historialariaren arabera. Dohain horri esker, Ishaq al-Mawsili maisuak kalifaren gortean sartu zuen, baina ikasleak maisua gainditu zuenean, jelosia eta bekaizkeria medio, dizipuluak Bagdadeko gortetik ihes egin omen zuen 822an. Beste iturri batzuen arabera, lehenago utzi zuen hiria, 813. urtean, eta Siria eta Ifrikian ibili ondoren, musikari ibiltaria Kordobara abiatu zen. Abd ar-Rahman II.a emir berriak beso zabalik hartu zuen han, batetik, omeiatarrak Bagdadeko abbastarren etsai amorratuak zirelako eta, bestetik, emirrak Kordoba Europako kultura hiriburu nagusietako izatea nahi zuelako. Handik aurrera Ziryab Kordoban bertan bizi izan zen, eta hantxe hil zen 857an. Eta, hala ere, bere eragina urrutira iritsiko zen hainbat arlotan.

VATIKANOKO APOSTOLUEN LIBURUTEGIA

Kordoban bere musika dohainak garatzeko eta zabaltzeko askatasuna eta baliabideak izanda, Europako lehenengo musika kontserbatorioa sortu zuen. Bertan, ikasleek afinazioa, gorputz adierazpena, a capella kantatzen, errezitatzen, konpasa jarraitzen... ikasten zuten. Ikasgaiak ikusita, garbi dago kontserbatorioan kantua lantzen zela bereziki, baina Ziryabek musika tresnei ere ekarpenak egin zizkien. *Ud* izeneko ekialdeko lauteari bosgarren soka erantsi zion; horixe izango zen gitarra klasikoaren jatorria, oraindik beste soka bat gehitzea falta arren.

Gastronomian, lehenengo pisto errezeta berea omen zen –Ameriketatik tomateak eta piperrak ekarri baino lehen egiten zen pistoaren bertsioarena behintzat–. Baina bere platerik ezagunena, Al-Andalusen mugak gainditu zituena, *zirbaya* izan zen, esnez, haragiz eta arbendolaz egina. Kataluniako *menjar blanc*, Frantziako *blancmanger* eta Italiako *biancomangiare* platerek hor dute jatorria. Salda eta zizka-mizketatik hasi eta azkenburu-rainoko plateren ohiko ordena ere berak iradoki omen zuen.

Fundamentuzko edozein *influencer*ek bezala, janzkeran eta estetikan ere arrastoa utzi zuen. Garai hotzetan kolore ilunez eta beroetan kolore argiz janzten omen zen , eta goizerako, arratsalderako eta gauerako jantzi egokiak ere bereizten zituen. Gizonen artean ile-kopeta luzea modan jarri zuen, emakumeentzat apaindegiak zabaldu zituen eta ile-apainketa, depilazio eta kosmetika eskolak ematen zituen estetika institutu modukoa ere sortu omen zuen.

Beti ere Ibn Hayyanen arabera, hamar seme-alaba izateko astia ere izan zuen. ●

9.000 urteko garagardoa Txinan

Txinako hegoaldean, Qiaotou hiritik gertu dagoen nekropoli batean, hainbat ontzi aurkitu ondoren, Dartmouth (New Hampshire, AEB) unibertsitateko ikerlariek ontziok aztertu eta emaitzak *Plos One* aldizkarian argitaratu dituzte.

Murkoetako mikrofosilei eta onddoen arrastoei esker, duela 9.000 urte inguru hartzitutako zerealak eta, beraz, garagardoa zutela ondorioztatu dute. Garagardoaren kontsumoa hileta erritualekin lotuta zegoela uste dute adituek.

Gainera, ontziak orain arte aurkitutako zeramika margotuzko piezarik zaharrenetakoak dira. ●

JIAJING WANG

ARGIA JENDEA

Zenbat maitale ditu gaur astekariak?

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Nahiago nuke bihar, balitu dobliak! Ez luke barkamenik, balitu erdiak! Pixka bat moldatuta hitzak, baina zein ondo sartzen den Tapia eta Leturiaren 'Aritmetika arazoak' kanta. ARGIA hasi da, urtero urte garai honetan bezala, Argia Jende gehiago erakartzeko ahaleginetan. Aritmetika kontuak hauek ere.

Urte osoan zehar egiten da saiakera ARGIAko kideekiko harreman hori lantzeko, baina urte amaiera berezia izaten da; Durangoko Azoka eta Eguberri giroa tarteko. Oroituko dituzu ziur, irakurle, umore klabean sare sozialetan zabaldutako #Darpidegu mezuak edo "memeak". Kanpaina arrakastatsuak. 2016an egindako harpidetza eredu aldaketari esker ere (nahi duzuna ordaindu eta nahi duzuna jaso) bultzada nabarmena lortu zen komunitatearen partetik.

Kanpaina hauek prestatzeko Argia Jendea lantaldea dago eta aurten aurrelan sakon bat egin nahi izan dute. Lantalde osoarekin partekatu dituzte iritziak eta ideiak asanblada orokor batean. Baina etxe barruko perspektibatik pixka bat atera eta begirada zabaldu nahian, ARGIAren komunitateko zenbait kideren iritziak ere bildu nahi izan dituzte, ARGIAk proiektu bezala dituen indarguneak eta hutsuneak zein diren identifikatzeko helburuarekin. Galdera bat planteatu zaie: nola sentitzen duzue zuek ARGIA proiektua eta nola uste duzue sumatzen dela zuen inguruan?

Talde osoko lanketa horretatik ateratako ideiak eta komunitateko kideen erantzunak benetan aberasgarriak izan direla azpimarratu dute lantaldetik. "Pista asko emango dizkigute aurrera begira lan egiteko moduan". Erantzunetan denetariko iritziak daude eta hori da interesgarria. Guk ezin artikulu honetan bildu, baina entresaka txiki bat egin dugu: "Ideien faktoria bat da niretzat eta bizipenen erakusleiho horizontala"; "Kazetaritza banala eta sentsazionalista ez izatea asko eskertzen dut"; "Batzuetan erraza da karikatura egitea, gertuko zaigunontzat bihurtu daitekelako autokontsumorako zerbait, ondo legoke tokia egitea 'manualetik' ateratzen diren ahotsei"; "Hausnartu beharko litzateke nola ez baztertu jende helduaren interesak aldizkaritik, gazteen zerbitzura egoten utzi gabe"; "Ez da soilik informazioa, irakurlearen aktibazioa eta kritika sustatzen ditu"... ●



DANI BLANCO

ONGI ETORRI KOMUNITATERA!

Arrazoi hauek eman dituzte egun hauetan ARGIA Jende egin diren kide berrietako batzuek, komunikabide independente hau ekonomikoki babestu eta proiektua bultzatzeko.
Ongi etorri denei, komunitatera!

"Euskaraz egiten den eta ikuspegi zorrotza duen lana lagundu behar dugula iruditzen zaidalako".

Bilboko Enekok

"ARGIA euskarazko aldizkari urrietako bat delako".

Lekeitioko Ibaik

AGENDA

UNIBERTSITATEETAN

ARGIAk eta Mugarik Gabe elkartasunerako eta nazioarteko lankidetzarako erakundeak elkarlana abiarazi dute, transnazionalen ustiaketek eragindako kalteen eta eskubide urraketen arteko lotura nabarmentzeko hasitako kanpaina barruan.

Eneritz Arzallus eta Onintza Irureta etxe honetako kazetariek unibertsitateko ikasleekin egingo diren hainbat mintegitan hartuko dute parte, *Pikara Magazine* hedabidearen eta Boliviako CEFREC elkartearen ordezkariekin batera. Transnazionalekiko menpekotasunaz, hizkuntza-eskubideez, kazetaritza eraldatzaileaz eta antolaketa-kultur ereduez hitz egingo dute, besteak beste. Hemen lehen hitzorduak:

Irailak 28
Mondragon Unibertsitatearen Bilboko fakultatean.

Urriak 25
Deustuko unibertsitatean.

GERRAKO GOSEARI IDI-BIHOTZ ZOPA

JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Gosearen gosea ez da ederra izango. Nik ezin dut horretaz iritzirik eman, baina makina bat adibide bada batean eta bestean. Miguel Hernandez poeta espainiarraren "Tipularen lo kantua" gogoangarria, esaterako; bera kartzelan duten artean ogia eta tipula, *Allium cepa*, besterik jaten ez duen amaren esnea hartzen duen haur ttikiarentzako sehaska abestia.

Gose bide latza ekarri zuen Herbehereetara Bigarren Mundu Gerrak. Alemanen egurra lehenik, eta gero haiek handik botatzeko aliatuena. Bonba guztiak bere buruen gainera. Treneko langileak alemanen garraioa oztopatzen saiatu ziren, eta ordainetan haiek herrialderako janari eta energia hornidura erabat blokeatu zuten. Barrualdeko hirigune handietan ez zen zer janik. Txikizioa izugarria zen, parkeetako eta etxeko lorategiko zuhaitzak erregai gisa erabiltzerainokoa. Hirietako lurrak berdinduta, bizimodua lurrazalaren mailan.

Baziren ordea lurpera begira zirenak: lurpean zuten goseteari aurre egitekoa. Milioika eta milioika idi-bihotz edo tulipa (*Tulipa spp.*). Lore dotoreen lurpeko erraboila etxeero sekula jan gabekoa. Gobernuarentzat erronka latza izan zen urtero bizimodua alaitu eta udaberria ekartzen zuen idi-bihotzaren lurpeko erraboila jateko konbentzitzea. Propagandarako errezeta liburu eta sukaldaritza erakustaldiez gain, erraboilak janda zein osasuntsu zeuden erakusten zuten enbaxadoreak ere ibili ziren.

DAVID RAYNISLEY / PIXABAY

Arazo larririk ere sortu zen: idi-bihotzaren erraboilaren ernamuinak barrenak ederki astintzen ditu. Aipamen ugari dago nola erraboilak jaten hasi eta sabela beldurtzeraino puzten zen. Inoizko uzker luze eta zaratatsuenak entzun omen ziren garai haietan. Ikasi zuten ernamuina kentzen eta zopa, ogia eta gailetak, albardatuak, kafearen ordezkoa eta abar ugari egiten. Karlien Metz Herbehereetako Erresistentzia Museoko zaintzaileak dioenez, 1945eko otsailean, anoa ofizialak egunean 340 kilokaloria besterik ez zuen. 2000koa da egun ohikotzat jotzen den hornidura. Idi-bihotzarena erraboila izanik energia iturri aberatsa da, patatak (*Solanum tuberosum*) baino kaloria gehiago du.

Gaur egun Herbehereetako jatetxe puntakoenak idi-bihotz erraboila lehengai gisara berreskuratu eta erabilera berriak asmatzen ari dira. Haruntza hurbiltzen bazara, gogoan hartu jatetxe hauek: Amsterdamgo Cafe Caron, Zwolleko De Librije eta Nijmegengo De Nieuwe Winkel sonatua. Itzultzean esango didazu.

Gose denbora letorkeen sumatze hutsarekin toki guztietan lurrari begira jendea, etxe guztietan laratza beltza. Gure aitonari makina bat aldiz entzun izan diogu kamionkak aza (*Brassica oleracea* var. *capitata*) jan zituela umetan eta gaztetan. Han ere ez zen ba uzkerrik faltako! Mendaroko Eusebio Mugerza Mendaro Txirristaka bertsolariaren puntua jaso zuen Antonio Zabalak "*Mendaro Txirristaka* bertsolaria" 1974ko liburuan: "Jaten ditugunian / aza ta porrua; / puzkarrik egin ezin, / sabelian orrua". ●

IGITIE

ARRATIAKO BASERRITAR AGROEKOLOGIKOAK SARETUTA

GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Hamarkada oso bateko ibilbidea du honezkero Igitiek, Arratiako (Bizkaia) baserritar agroekologikoen elkarteak. 2010. urtean hasi ziren eskualdeko zenbait nekazari elkartzen, haien artean apenas ezagutzen ez zirela eta horri buelta eman beharra zitzaiola sentitu zutenean. "Bagenekien ekoizle batzuk bageundela, baina ez nortzuk ginen ezta zer egiten genuen ere", dio Aner Mimenza kideak. Hastapeneko helburutzat zuten elkar ezagutzatik eta saretzetik etorri da ondorengo guztia, modu nahiko naturalean: taldearekin lotura handiagoa edo txikiagoa duten proiektu ugari sortu dira eskualdean —atal honetan duela gutxi atera genuen Maskilu kontserbena, adibidez—, eta ekoizleen artean ere ekimen komunak abian dituzte.

ELKARLANA DA BIDEA

"Lehen bileretatik ikusi genuen guztiok arazo oso antzekoak genituela, bai eguneroko lanari zuzenean lotutakoak, baina baita orokorragoak ere, instituzioen jarrerei zegozkienak adibidez", dio Mimenzak. Oztopo horiei aurre egiteko elkartu eta lau ildotan banatu zuten Igitieren jarduna: merkaturatzearen ildoa, formakuntzarena, lur-poltsena eta ekinbide politikoarena.

Lehenengo puntuari lotuta, ekoizleen produktuei irteera emateko hainbat bide landu dute urteotan, eta eskualdeko udalekin elkarlanean azoka txikiak eta plazak berreskuratu dituzte. Ekoizleen artean formakuntzak antolatu eta nekazari berriei bidea errazteko ekimenak ere izan dituzte martxan urteotan; esaterako, lurrak erabiltzen ez zituzten hainbat jabe pribaturekin harremanetan jarri eta horiek landu nahi zituztenei eskaintzea lortu dute. Ekinbide politikoaren ildoari dagokionez, elikadura burujabetzaren inguruan lanketa egitea eta jendartean eragitea da taldearen helburua. "Bestelako eragileekin elkarlanean, gizartearen eraldaketari gure ekarpena egin diezaiokegula uste dugu", azaldu du kideak.

BAILARAN ERREFERENTE

Biztanle gutxiko bailara zabala da Arratia, eta baserri asko egon arren, horretatik bizi direnak gutxi direla dio Mimenzak. Eskualde sakabanatu horretan erreferentzialtasuna lortu du taldeak azken urteotako lanari esker, eta gaur egun, askotariko adin eta esparrutako hamalau bat ekoizle biltzen dira Igitien. Pandemiak taldearen jarduna zaildu eta zertxobait moteldu badu ere, berriz ere indartzen ari direla dio kideak, eta eskola-jantokien gaiarekin buru-belarri dabiltza azken hilabeteotan.

"Hor ari gara instituzioekin ere lanean, aldaketa bideratu nahian, eta krisi ekonomiko egoera honetan ere nekazaritzatik lanpostu duinak nola lor ditzakegun pentsatzen", dio. Bide horretan, bada beste proiektu bat ere bailaran: errefuxiatuei lana eskaintzeko eta haiek sostengu ekonomiko minimo bat lortzeko negutegiak dituzte martxan. Bada, hori eta beste egitasmo asko Igitiek zuzenean garatutakoak izan ez arren, taldean ateratako kezka eta ideiei tiraka sortu dira. Elkarlanak eta saretzeak, berarekin, proiektu gehiago dakartzalako beti. ●

EMAKUME IDAZLEAK XX.MENDEKO ITALIAN

Lorenza Mazzetti: barrura begiratu memoria egiteko

Urte batzuk pasa dira Durangoko azokan Igela argitaletxeko standera begiek salto egin zidatenetik. Belen Lucasen liburu azal deigarri eta erakargarria ikusi eta gehiegi pentsatu eta ezer ere irakurri gabe erosi nuen. Denbora luzez egon zen hainbat etxetako apalategietan hautsa hartzen italiar literaturan murgildu nintzen arte. Eta, orduan, Lorenza Mazzettiren *Zerua gainbehera dator* liburuak eskura egin zidan salto.

AINHOA ALDAZABAL GALLASTEGUI

Mazzetti artista italiarra izan zen (Florentzia, 1927 – Erroma, 2020); idazlea, margolaria eta zinegilea besteak beste. Umezurtz geratu ziren bere ahizpa bikia Paola eta biak. Horregatik aitaren familiarekin bizi izan ziren urte batzuk 1944an SS-ak izeba, osaba eta lehengusinak juduak izatearren akabatu zituzten arte. Hala, bi aldiz geratu ziren umezurtz.

Esperientzia gogor eta traumatiko horren ostean unibertsitate garaia Londresen egitea hautatu zuen, nolabait oroitzapenak eta mina atzean uzteko asmoz. Espazioan urrunduta bihotza berarekin eramango ez balu bezala. Pinturaren eta artearen historia ikasten hasi zen, baina bikien tutore zen senideak ondasun guztiak xahutu zituenaren jakinarazpena iritsi zitzaion Mazzettiri. Familiarik eta dirurik gabe, bere ikasketak kafetegi batean zerbitzari lanak egitearekin uztartu behar izan zituen.

1956an *K* filma grabatu zuen Slade School of Fine Art eskolako diruarekin eta erdi ezkutuan. Fakturak iritsi zirenean, salatu beharrean filma ikusi zuen zuzendariak, eta zorrak ordaintzeaz gain eskolak ekoitzi zuen lehenengo filma bihurtu zen. Horrek ateak ireki zizkion, eta British Film Institute-k finantziatuta eta beste hiru zinemagilerekin batera (Lindsay Anderson, Tony Richardson eta Karel Reisz) abangoardia izango zen Free Cinema mugimendua sortu zuen. Garaiko Europak bizi izan zituen gerra eta sarraskien ostean munduari begiratzeko modu berri bat eskaintzeko saiakera izan zen, 60ko hamarkadara arte luzatu zena. Zineman, antzerkian, literaturan eta artean oro har aldaketa eragin zuen mugimendua izan zen. Mazzettik zuzendu zuen *Together* (*Elkarrekin*) filmak gerraosteko Londresen kokatzen gaitu eta bi gormutu ditu protagonista. Ikuskera propioa duten eta kanpoko mundutik erdi isolatuta bizi diren pertsonaia horiek hiriko haur eta gazteen burlak jasotzen dituzte. Berezia eta ausarta da Mazzettik egin zuen proposamena. 1956an Cannesen aurkeztu zuten eta abangoardiako palmares saria jaso zuen.

Horren ostean Florentziara itzuli eta depresio sakon batean murgildu zen, bere ahizparen babesa zuen arren. Hainbat terapiatan bilatu zuen gertatzen ari zitzaionari erantzuna eta, azkenik, Gestaltak ireki zion bidea. Gauetan loak hartzea kostatzen zitzaion eta lortzen zuenean amesgaiztoek hartzen zuten. Horien jatorria haurtzaroko gertakizunetan kokatu zuen terapeutak: bizipenek inpaktu eta sufrimendu handia eragin zioten eta minari ihes egiten saiatu zen. Baina mina deserosoa bada ere, aurre egin besterik ez dago berau gainditu eta berriz bizi ahal izateko. Barnean zeramana askatu eta osatu ahal izateko gomendio bat eman zion terapeutak: idazteko.

Momentu horretan jaio zen artikuluaren hasieran aipatu dugun liburua: *Zerua gainbehera dator*. Hainbat argitaletxetara bidali ostean, 1961an argitaratu zioten. Itzelezko arrakasta izan zuen eta hamabi hizkuntzatara itzulia izan zen. 1993an berrargitaratu zenean jakin zen liburua bere bizitzan oinarrituta zegoela, osabari egindako eskertzari esker. Euskaraz Igelak argitaratuta aurkitu dezakegu, Xabier Olarrak eta Fernando Reyk itzulita. Liburuaren berezitasun nagusia ahots narratiboa da: haur batena. Esango nuke bizipenen krudelari eta gordintasunari aurre egiteko estrategia literarioa dela. Gaira distantzia emozional pixka batekin hurbiltzeko modua. Oso ondo jasotzen da haurraren begirada eta bere ahotsa. Testuinguru osoa ez duen eta munduaren (i)logika oraindik ulertu ez duen izaki

BFI NATIONAL ARCHIVE

xaloa da protagonista. Bere begietatik eta bere ahotsean arriskua nabaritzen da. Osaba galtzeko arriskuari beldurra ere ikusiko dugu. Izan ere, ez dugu Bigarren Mundu Gerrako kontakizun lineal eta analitikorik aurkituko. Liburuaren irakurraldi desberdinetan harritu nauena zera da: haurren jolas eta elkarrizketen bidez elizaren boterea, nazien biolentzia eta horrek sortutako beldurra nola gorpuzten diren bikain azaltzen duela. Azalpen teorikorik gabe mezuak eta sineskerak erraietan iltzatzen dituzte pertsonaiek. Txiki-txikitatik. Horren guztiaren kritika da liburua. Eta baita memoria ariketa ere: Mazzettiren oroitzapenak ordenatzeko balio izan zuena alde batetik; eta familiari bere lekua egiteko modua izan zen beste alde batetik. Azkenik, zauri kolektibo baten akta jasotzea ere bada. Memoria eta osatze ariketa bat. 2000 urtean izen bereko filma egin zuten Frazzi anaiek.

Euskaraz irakur dezakegun bere liburu bakarra da hizpide hartu duguna, baina bere ibilbide literarioa oparoa izan zen. 1963an *Con rabbia* (*Amorruz*) liburua argitaratu zuen. Aurreko liburuko bi ahizpak dira protagonista hemen ere, baina kasu honetan ahotsa nerabeena da. Izenburuak pista ederra ematen digu; izan ere, tonua da liburu honetatik azpimarratuko nukeena: amorrua eta haserrea. Umetatik munduak kale egin dien pertsonaiak dira. Biolentziak eta gerrak ia dena kendu die eta ondorengo urteetan hipokrisia nagusi da Italian: elizaren boterea nagusitzen da oraindik, eta egitura patriarkala hertsia da oso hain azkarrak eta biziak diren, eta jakinminez beterik dauden, buruentzat. Aurrerakoia, ausarta eta feminista da liburuan egiten den aldarria. Erreferentzia literarioz, artistikoz eta politikoz beteriko liburua da.

Beste liburu batzuk ere idatzi eta argitaratu zituen, *Diario londinense* (*Londresko egunerokoa*) eta *Mi puo prestare la sua pistola per favore?* (*Utz diezadakezu zure pistola, arren?*), besteak beste. Haurrentzat antzerkiak sortu eta txotxongiloen mundua ere ezagutu eta ezagutarazi zuen. Puppet Theatre sortu zuen nahiz eta hori den bere alderdirik ezezagunena. PCIko (Italiako Alderdi Komunista) kide izan zen eta *Vie nuove* aldizkarian astero idazten zuen.

Bukatu aurretik, Mazzetti pintorea ere aipatu nahi nuke. 2010an Erroman *Album di famiglia. Storia di una famiglia sotto il fascismo* (*Familia albuma: Faxismoaren menpeko familia baten historia*) erakusketa aurkeztu zuen. 80 bat margolanetan bere txikitako historia jasotzen zen. Irudi oso bereziak iruditzen zaizkit niri: naif itxura dute baina sinboloz eta esanahiez beteta daude. Ordenan ikusita erritmoa hartzen doaz eta kontakizuna bikain eginda dago. Koloreen erabilera magikoa da. Edertu eta indartu egiten dute kontakizuna. Hipnotikoak dira. Erakusketarekin batera margolanak, testuak, argazkiak eta analisiak jasotzen zituen liburua argitaratu zuen, urte askoan deskatalogatuta egon dena. 2020an, Lorenza Mazzettiren heriotzarekin batera berrargitaratu da liburua. Altxor bat da, zin dagizuet.

Lagun batek esan zidan behin memoria historikoa egiten dugunean atzera begiratzeko joera dugula, baina barrura begiratu beharko genukeela eta erraietatik oroitu. Artista handia zen Mazzetti, harribitxi bat. Letrak, margolanak, irudiak, mugimendua... dena baliatu zuen bere minak loa ez lapurtzeko. Bizi izandakoari aurrez aurre begiratu eta ahotsa jarri zion. Haur batena, gazte batena eta heldu batena. Eta zorionez euskaraz irakur dezakegu bere lanaren lagin bat. Uda amaierako opari gisa. ●

LIBURUA

Salbamendurako letrak

PIKARA MAGAZINE

112 POEMA BIZIARI HEGALAK JARTZEKO

EGILEA: BEGOÑA ABAD DE LA PARTE

ITZULTZAILEA: FERNANDO REY ESCALERA

DENONARTEAN, 2020

AINHOA ALDAZABAL GALLASTEGUI

Liburuaren hitzaurrean autoreak berak eta itzultzaileak kontatzen dute bigarren horrek aukeratutako 112 poemen antologia aurkituko dugula. Zenbaki hori da larrialdietan erabiltzen duguna. Arriskuan gaudenean laguntzarako telefono unibertsala. Salbamendurako poemak dira, beraz, Begoña Abad de la Parterenak.

Gustatu zait argitalpenak jatorrizko hizkuntza, gaztelania, eta euskarazko itzulpena jasotzea. Modu desberdinetan irakurtzeko aukera ematen digu: lehenengo osorik gaztelaniaz eta gero dena euskaraz edo poemak banan-banan bi hizkuntzak tartekatuz. Azkenengo modu hori aukeratu dut eta gustura aritu naiz jolasean: itzultzaileak nola pentsatu, esan eta idatzi duen kontrasta daitekeelako jatorrizko hizkuntza ezagutuz gero. Zein soinu ematen dion hizkuntza bakoitzak eta nola edo nora iristen diren poemok.

Antologiaren egileak proposatutako ordena jarrai daiteke edo liburua zabaldu eta parean egokitu den orrialdea irakurri. Azken hori izan da nik hautatutakoa. Poema batzuk bi, hiru eta lau aldiz irakurri ditut. Beste batzuk behin eta ez ditut ongi gogoratzen.

Eguneroko gauza txikiak eta mezu sakonak nahasten dira. Poema batzuk deskribatzaileagoak, narratiboagoak dira, beste batzuk aldarrikapen zuzenekin osatuta daude. Hausnarketez josi ditu hitzak eta borborka darie maitasuna; bere buruari, inguruari eta bizitzari. Politika, desobedientzia, murrizketak bezalako hitzak irakur ditzakegu. Paradisua, infinitua, duintasuna eta barkamena bezalako ideia abstraktuagoak ere badaude.

Idazle eta poeta izateaz hausnartzen du *Eta zer*... poeman, eta Gloria Fuertesen poemaren bat ekarri dit gogora. Galdera erretorikoak, bere identitatearen inguruko galderak, zalantzak eta baieztapenak egiten ditu.

Topikoa izango da istorioek salbatzen gaituztela esatea, baina ideia hori defendatzea gustatzen zait, nahiz eta *Manifiesto por la lectura* (Irakurketaren aldeko manifestua) liburuan Irene Vallejok askoz hobeto azaltzen duen. Udarako maletan etorri da azken hori ere. Bikiniz, kuleroz eta liburuz bete dut motxila. Errazagoa litzateke liburu elektronikoa eramango banu; espazio txikiagoan letra gehiago eraman ahal izateko. Baina papera eramatea gustatzen zait eta aurten zeharo asmatu dut aukeraketarekin. Eta zuek, zer irakurri duzue uda honetan? ●



MUSIKA

Klasiko garaikideak Zumarragan

ZUMARRAGAKO UDALA

ANTIOKO XXXVIII. MUSIKALDIA

SIGMA PROJECT SAX QUARTET ETA MARIO PRISUELOS (PIANOA) EGITARAUA: PHILIP GLASS, BERNSTEIN ETA GERSHWIN-EN LANAK

LEKUA: ZUMARRAGAKO ANTIOKO ERMITA.
DATA: IRAILAREN 11

MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

Irailero Zumarragako Antioko ermitan egiten den Antioko Musikaldia zikloak interes handia piztu zuen saio bat ekarri zigun.

Ez da oso ohikoa lau saxofoiko formazioa entzutea. Jende askorentzako benetako sorpresa izan daiteke holako saio bat. Eta, benetan, laukote honen soinuemaitzak inor axolagabe uzten ez duen gozotasuna eta sakontasuna ematen ditu. Gainera, talde hau, Sigma Project Sax Quartet, ez da auditorio guztietan behin eta berriz jotzen den musika interpretatzearekin konformatzen dena. Bere kideak musika garaikideari erabat emanak daude. Betiko programetatik kanpo musika ikuspegi berriez gozatzeko aukera ematen digute eta hori eskertzekoa da. Dena den, Zumarragan eskaini ziguten saioan gaur egungo musika interpretatu zuten, baina neurri handi batean musika ezaguna zen. Publikoaren aldeko jarrera bermatuta zuten.

Hasteko, Philip Glass-en *Concerto for Saxophone Quartet* lanak taldearen tinbre-fintasunak eskaini zizkigun. Lau interpreteek soinu belusatua lortu zuten eta publikoa Glass konpositorearen giro minimalista eta efektistan bildu zuten.

Kontzertuaren bigarren zatian, laukoteak Mario Prisuelos pianistarekin partekatu zuen eszenatokia eta bi lan interpretatu zituzten: lehenengoa, Leonard Bernstein-en *Candide* operetaren obertura goxoa izan zen. Musika intzidentala da, ironiaz eta freskotasunez betea, eta laukoteak eta piano-jotzaileak trebetasunez interpretatu zuten.

Baina, zoritxarrez, amaitzeko, desastrea iritsi zen. Saioaren une gorena izan behar zuena, George Gershwin-en *Rhapsody in Blue* lan ospetsua, esperientzia txar bihurtu zen, pianistaren exekuzio eskasagatik. Mario Prisuelosek karrera sendo samarra du, baina egia esan, *Rhapsody in Blue* gehiegi da beretzat. Ezin zen moldatu pasarte korapilatsuenetan, non sistematikoki huts egiten zuen eta galdu ere egiten zen. Pasarte atseginenetan edo errazenetan musikaltasun eta adierazkortasun falta nabarmena zen. Sigma Project taldeko musikariak hutsune horiek betetzen saiatu ziren, baina oso zaila zen agerikoak ez izatea.

Azken akatsa bis bezala lan honen zati bat eskaintzea izan zen, non pianistak kontrola erabat galdu zuen. Pena, saxofonistak lehen mailakoak direlako eta bestelako luzimendu bat merezi zutelako. ●

Urte luzez Musika Zuzenean

GINGER
NOIZ: irailak 17
NON: Donostiako Doka Antzokia

XALBA RAMIREZ · MUSIKA ZUZENEAN

Musika Zuzenean-ek Hamaika Telebistan 150 programa bete dituela ospatzeko, zer hobeto musika zuzenean eskaintzea baino. Donostiako Kafe Antzokian antolatu dute, EAEn dantzatzea debekatuta dagoen azken egunean bertan. Ginger eta Rodeokoak aritu dira dantza gabe, baina dezibelio dosi ederrarekin.

Ginger zarauztarrak izan dira gaualdiko erreginak, estreinaldia baitzuten. Lehenago Mor More edo Pottors eta Klito taldetzarretan aritutako lagunez osatuta, lehen kontzertuaren urduritasuna zeramaten, baina laguntzen zuen Doka zarauztarrez beteta ikusteak. Denak lagunak, eta dena alde, beraz.

Urduritasunak ez du giroa hoztu, beraz. Aspaldi entzun gabeko punk erritmo eta jarrerarekin, une melodiko eta *hardcoretago* batzuetatik igaroz, zuzeneko bizi eta alaia eskaini dute, irribarre konplizez josita.

"Mundua lo dago, baina jada ez du axola, gaua ez bada sartzen zure kulerotan", lasai abestuz hasi da Nerea Altxu. Estrofa bukatu eta gitarraren distortsioa zabalik utzi denean, publikoa oihu bizian eta txistuka, bateria sartu, eta egurra emateari ekin diote. Zaratazarautz tradizioa daramate zainetan, badakizue.

Itoiz gogoratzen duen riff batekin jarraitu du Jone Azkoagak fin-fin SG elegantea astinduz, baina popera jo beharrean punk oinarriarekin: "Labana beti gertu, *si viene le rajo*". Mor More-n egondako Andrea Lopetegik sendo mantentzen du baxua, Gorka Larrañagaren bateriarekin batera.

Altxuk gitarra askatu duenean, bere frontwoman dohainak ondo erakutsi ditu. Kanta eta oihuez gain, dantzaren plazera atera du, agertoki gainean disfrutatu behar dela erakutsiz. Putzuzulo Gaztetxearen aldeko kantatzarra jo dute, grabatuta zutena, baina puskaz azkarrago eta indartsuago. Eraistea gertu dela eta, emozioengatik, akaso. Kashbad-etik gertu:"Ni izateko, zu izateko, gu izateko, Amets fabrika bat".

Putzuzulotarrez beteta aretoa, komunitateak sostengatutako kontzertua izan da. Letra egileak, diseinatzaileak, lagunak... inork ez du galdu nahi izan Gingerren debut bikaina. Pena galanta labur-laburra izan dela. Beren lehen lana bidean dute, eta aurrera begira dira.

Eta komunitateaz ari garela, Musika Zuzenean-en 150 programez gain, ikasturte berrian webgune berria estreinatu dute. Euskal Herriko kontzertu guztiak biltzen dituen plataforma, beti proposamen berrietara zabalik. Gure herriko lurrazpiko eszena bultzatzen duen atari garrantzitsuenetako bat da. Urte luzez beraz Musika Zuzenean! ●

EGILEA | **ANA ZAMBRANO**

Hitz gezidunak



Sudokua

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

	5	9		8		2	3	
			3				9	
			2					8
8			9	4			6	
	4	7				8	1	
	9			1	6			3
1					5			
	7				8			
	6	8		2		9	5	

5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.

1. Haga
2. Martxan
3. Haur txikia
4. Gaia, materia
5. Neba

EBAZPENAK



5X5:
1. LANGA, 2. ABIAN, 3. NINIA, 4. GAIKI, 5. ANAIA.

Xabier Apestegi, 'DJ Reimy'

MUSIKA PEDALKADAKA

"Rave-a erresistentziarako ekintza politikoa da"

Musika eta bizikleta zalea da Xabier Apestegi (Sada, Nafarroa, 1992), baina bi arlo horiek batu eta hautu artistiko gisa kaleratzeko DJ Reimyren mozorroa janzten du. Bizikletak konpondu, tuneatu eta musika garraiatzeko prestatzen ditu, beti espazio publikoaren defentsa oinarri. Eta Iruñeko tabernak ixterakoan, ohikoa da pedalei eragiten agertzea, parrandazaleak musikaren doinura gidatuz, festarekin jarraitzeko toki berri bila.

ANDER PEREZ **JOSU SANTESTEBAN**

Askotan salbatu diozu parranda bati baino gehiagori.
[Barrez] Ni naiz festa maite duen lehena. Eta are gehiago gozatzen da zu zarenean dantzarako espazio horiek proposatzen dituena. Ahal dudan aldiro eskaintzen dut hori. Azkenean, festen sistema dagoen bezala dago: *garitoen* eta baimenen menpe zaude, eta nik alternatiba proposatu nahi izaten dut. Jendeak autogestionatu dezala bere festa. Parranda nahi duzula? Hartu bizikleta, segi mendira, egizu zure festa.

Pandemiak zailduko zuen kontua.
Asko zaildu du, arrisku sozialerako egoera izan badelako. Baina aldi berean, beste modu batean antolatzea ekarri digu, modu familiarragoan, kontrolatuago. Mundu guztiak behar du jendearekin egon, sozializatu, dantza egin. Norberak bere modura egin dezala.

Zuretzat, dena dela, ez da parranda hutsa. Badu bere aldarrikapena ere.
Bi aldeak ditu. Musika dantzatu eta gozatzeko energia hori dago, baina horren atzean espazio publikoak berreskuratzeko aldarria ere badago. Kalea interes pribatuen menpe dago, boteredunen zerbitzura. Zure bizikleta eta musikarekin plaza batean nahi duzuna egiten egotea jarrera politikoa da, kalea denona dela aldarrikatzeko.

Beraz, aldarrikatu daiteke *rave*-a parranderoegi iruditu gabe?
Noski, erabat. *Rave*-a erresistentziarako ekintza politikoa da, espazio publikoen alde. Kalea gero eta gehiago ari da pribatizatzen, eta aisialdia kontsumo bihurtzen da, ordaindua. Jendeari ukatzen zaio festa autogestionatzeko aukera, hau da, bere denboraz gozatzeko aukera.

Nondik datorkizu musika zaletasuna?
Txikitatik hezi naute musikan, oso zaleak izan gara etxean. Herriko bandan eta txarangetan jo dut, tronboia, eta pianoa ere jo izan dut. Musika bizi dut. Gerora instrumentuak utzi ditut, baina DJ gisara beti duzu musika presente. Eta batez ere, musika publiko egitea maite dut, partekatzea. Txarangarekin egiten nuen, eta DJ moduan egiten dut. Ez duzu zuretzat gordetzen, musika beti da jende gehiagorekin. Horrek egiten du polit.

REIMY, APESTEGIREN ISPILUAN

"Xabier Apestegi Sadako mutil bat da, musikazale eta bizikletazale amorratua. Reimy haren *alter ego*-a da, *pintxatzeko* jarri nuen ezizena. Nolabait, nire aurpegi publikoa da, DJ gisara, baina baita ekitaldi antolatzaile gisara ere, edo *liante* profesionala, nahi bezala. Nire burua Reimyren bitartez erakusten dut, hori da partekatzen dudana, baina Xabier beti dago hor, itzalpean lanean, tailerrean orduak ematen, musika prestatzen, jendearekin harremanetan. Bilbon ikasi nuen, Arte Ederrak, eta gero Madrilen segitu nuen formatzen, eta Ingalaterran, Erasmusen. Duela lau urte etorri nintzen Iruñera".

Zertan da musika eraldatzaile?
Niretzat aglutinatzaile *superpotentea* da, kaleari erritmoa, hitzak eta mezuak eransten dizkiolako. Jendearentzat ereserki komun bat da. Mundu guztiak gozatu dezake musikarekin. Kohesiorako oso tresna indartsua da. Eta kalean, denentzako eskuragarri jartzen duzu, instituzioetatik edota musika aretoetatik pasa gabe. Jendeak enpatia handia du horrekiko. Bueno, orokorrean [barreak].

Nola egiten du DJ-ak bere musika bere egiteko? Ez baita hark sortua...
%95ean beste batzuen musika da. Nik egin izan dut *remix*-en bat, baina beti nahiago izan dut publikoarekin elkarreragin, estudioan grabatzen egon baino. DJ bakoitzak bere ukitua, bere diskurtsoa ematen dio *pintxatzen* duen musikari. Nola lotu estilo bat bestearekin, horrek motibatzen nau. Azkenean, nik ere estilo askotatik edan dut: txarangan jo dut, Big Bandetan, musika latinoa, eta rap talde bat ere izan nuen. Hori dena nahastu eta nire zigilua jartzea gustatzen zait.

Eta zein da zigilu hori?
Gozatzeko musika da, aurreiritzirik gabe dantzatzekoa. Nire etiketa bakarra hori da, ez dudala etiketarik. Maletan gordetzen dut zerbait polita transmititzen duen kantu oro. Nire ezaugarri nabarmenena da bizikletarekin nahasten dudala musika, mugikorra izan dadin, kalera ateratzeko eta bestela ezingo nukeen tokietara eramateko, *a priori* festa eremu gisara ulertzen ez diren horietara.

Musika txanponaren alde bat da zuretzat, bizikleta baita bestea.
Nik, txikitatik, aisialdiarekin lotu izan dut bizikleta, mendira joateko eta. Gero, hirira zoazenean, bizikleta elementu ia politiko gisara ulertzen hasten zara, mugikortasunaren ikuspegitik, eta alternatiba gisara, kotxearen menpe ez bizitzeko. Bestalde, artearen eta musikaren ikuspegitik, alor perfomatiboan, bizikleta eta musika lotzeak espazio publikoa aldarrikatzeko aukera ematen dit. Sormen eta adierazpen tresnatzat dut, eta esperimentatzen dut.

Iruñeko Masa Kritikoaren bultzatzaileetako bat ere bazara. Hilean behin abiatzen da bizikleta martxa hori. Zer da?
Ez dugu deus asmatu, urte askoko ibilbidea du mundu osoan. Iruñean aktibo egon zen urtetan, batez ere mugimendu ekologistei lotua, zentzu militanteagoan. Gero gainbeheran etorri zen. Nik, Madriletik bueltan, gogo antzekoekin zebiltzan hainbat mugitu nituen, mugimendua berpizteko. Musika erantsi nion, ludikoagoa egiteko, dibertigarriagoa. Oinarrian, espazio publikoa bizikletentzat eta pertsonentzat izan dadila aldarrikatzen da, eta ez hainbeste kotxearentzat. Gure hiriak beti egon dira kotxeari begira, ibilgailu pribatuaren mesedetan.

"Hiri gisara, etengabeko aldaketan dago Iruñea, jende asko dagoelako hiriari buelta emateko gogoz, gauzak proposatuz, kalera ateraz. Jolasteko hiri bat da. Hiri handietan gauzak disolbatu egiten dira. Hemen arrastoa uzten dute".

Nola ikusten da Iruñea hor goitik?
Bi Iruñea daude, non mugitzen zaren. Niretzat hiri *kasposoa* zen, Opus Dei eta UPNrena. Baina aldi berean, probintziahiri bat da, ia herri bat, eta *guay* dago, egiten duzun orok izaten duelako harrera ona, erraza da sareak egitea. Hiri gisara, etengabeko aldaketan dago Iruñea, jende asko dagoelako hiriari buelta emateko gogoz, gauzak proposatuz, kalera ateraz. Jolasteko hiri bat da. Hiri handietan gauzak disolbatu egiten dira. Hemen arrastoa uzten dute. ●

BIDALI ZURE HARRIKADAK: **BERANDUEGI@ARGIA.EUS**

“Gora euskal herria konprometitua, euskara jalgi jalgi plazara!”

Urkulluk adi adi jarraitu du Iriarteren poesia, eta EAJren politika aldatzen hasi aurretik, lo-kuluxka bat egitea erabaki du

“Axular, Zakilixut, Maddi, Txan magoa, Olaizola II, Itxaro, Pirritx, Porrotx edo Txiribiton, berdin zait. Herri handi bat gara, baina indar handia duen herria gara”. Hitz hunkigarri horiekin hasi du hitzaldia EH Bilduko teleberrietako eledun Maddalen Iriarte legebiltzarkideak, txertorik hartu ez dutenak sutan erre behar ote diren bozkatzeko saioan. “Lurdes Iriondo, Izaro, Berri Txarrak, Bittor Aiape, Yolanda Barcina, Roberto Lopez Ufarte, Ana Galarraga, Gartxot, Maria Luisa ‘Goenkale’-koa, Jean Rene Etxegarai, ‘Ugarteko’ edo Blas de Lezo. Euskal Herria munduan jartzeko unea da. Gurea askatasuna da, gurea konpromisoa da”. Txalo zaparradaren erdian, gasolina potoa eta metxeroa hartu, eta Xabier Silveiraren etxerantz abiatu da mapamundi borobil batekin.

Ilea ez da sortzen edo galtzen, transformatu egiten da

SAREAN ARRANTZATUA

Anarka totela

AKKURATUA | TWITTER

Gu, estatua izango bagina

Komunera joan eta mugikorra ahaztean



E R A K U S K E T A

BIDAIARIK LUZEENA

LEHEN MUNDU BIRA

San Telmo Museoa
2021 6 26 / 2021 10 24

Antolatzaileak:

GOBIERNO DE ESPAÑA · MINISTERIO DE CULTURA Y DEPORTE

AC/E ACCIÓN CULTURAL ESPAÑOLA

ARCHIVO GENERAL DE INDIAS

STM San Telmo Museoa · DONOSTIA SAN SEBASTIÁN · donostia kultura

Laguntzaileak:

GIPUZKOA ETORKIZUNA ORAIN

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

SAN TELMO MUSEOA
Zuloaga Plaza, 1 / 20003 Donostia / San Sebastián
www.santelmomuseoa.eus / @santelmomuseoa

EUSKARA, BIHOTZETIK EZPAINETARA

Barruan daramazu kirol zaletasuna,
onena emateko gaitasuna, ahaleginduz gozatzekoa.
Eta barruan daramazu euskara ere,
kirola barrutik bizitzeko.

Euskadi, auzolana

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO